



sabino
arana
fundazioa

JARDUEREN OROITZA TXOSTENA

2023

aurkibidea

- 00 SARRERA
- 01 IKERLANAK
- 02 ZABALKUNDEA, ARGITALPENAK, KOMUNIKAZIOA ETA INFORMATIKA
- 03 BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK
- 04 *HERMES* PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
- 05 GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA
- 06 EUSKARA
- 07 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA
- 08 SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA
- 09 BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK
- 10 JARDUEREN ONURADUNAK
- 11 HIZKUNTZA- ETA GENERO-POLITIKEN ADIERAZPENA
- 12 2023an EGINDAKO JARDUERAK

Hurrengo orrialdeetan, Sabino Arana Fundazioak 2023an garatu dituen jarduera nagusien laburpena aurkeztuko dugu.

2023ko ekitaldian, hainbat urteurren esanguratsu ospatu ditugu gure herriaren historian, hala nola lehen euskal egunkari abertzalearen (*Bizkaitarra*) 130. urteurrena; «Larrazabalgo Zina» izenekoaren 130. urteurrena eta horren aurrendari nagusi Sabino Arana Goiriren heriotzaren 120. urteurrena; Juan Ajuriagerraren jaiotzaren 120. urteurrena; euskal egunkari nagusi bihurtu zen *Euzkadi*-ren lehen zenbakia argitaratu zeneko dataren 110. urteurrena; Iruñean, *La Voz de Navarra* egunkari abertzalearen lehen zenbakia argitaratu zeneko dataren mendeurrena; eta Luis Álava fusilatu zuteneko dataren 80. urteurrena, besteak beste.

Gogoeta eta eztabaida mintzaguneari gagozkiola, ekainean «Euskadin izan diren eraldaketa handiak» zikloari azkena eman genion. 2022ko irailaren 16an abian jarri zenetik, Euskal Autonomia Erkidegoak azken 30-40 urteetan eta hainbat arlotan (ekonomian, bizikidetzan, administrazioan, gizartean, industrian, teknologian, ingurumenean edo kulturen) eginiko bidea aztertu dute esandako arloetako adituek. Aurten, industrian, teknologian, ingurumenean, kulturen eta Euskadik munduan izan dituen eraldaketak jorratu ditugu.

Era berean, EAJ-PNV alderdiarekin elkarlanean, «Euskadi Think Next» deritzon ideia-laboregia jarri dugu abian, Euskadi «bizitzeko lekuri onena» bihurtzeko politika publikoak diseinatzeko helburuz. «Euskadi Think Next» ekimenak EAJ-PNV alderdiak urtebetetik gorako aldiak garatu zuen eta 2022aren amaieran amaitu zuen «Entzunez Eraiki» entzute aktiboaren ekimenaren jarraipena izan nahi du. Aurtengo azaroan eta abenduan, «Euskadi Think Next» ekimenaren barruan, gizarte demokratikoetan gertatzen ari den polarizazio politikoa eta komunikabideen nahiz politikaren arteko harremanak aztertu ditugu.

Jardunaldi-mintegien bi ziklo handi horiekin batera, XXI. mendean puri-purian dauden gai eta gertaera guztien azterketan, eztabaidan eta hausnarketan murgildu gara: EDPrekin lankidetzan, Europak gaur egun eta datozen urteetan aurrean izango dituen erronka eta erronka teknologiko eta energetikoak aletu ditugu; hainbat adituren eskutik, klima-aldaketak planetako eremu pobreenetan, bereziki Afrikan, daukan eragina aztertu dugu, eta ondorioek genero-aldagaiarekin duten lotura erkatu dugu; dokumentu-ondarearen garrantzia eta artxibo historikoetan gordetako funts pertsonal eta pribatuaren garrantzia aztertu dugu; arte eszenikoen memoria: antzerkia eta zinema Hego eta Ipar Euskal Herrian eta erbestean; eta hezkuntza eleanitzak dakarzikun erronkak eta aukerak, besteak beste.

Ezin ditugu ahaztu «Emakumeak aberria eginez. Emakume Abertzale Batzak 100 urte» liburuaren argitalpena eta, Ebook bertsioan, Gregorio Arrien historialariaren «¡Salvad a los niños! Historia del exilio vasco en Gran Bretaña, 1937-1940» kaleratu den liburu elektronikoa, Sabino Arana Fundazioak argitaratu duen lehen argitalpen digitala.

Hermes pentsamendu eta historia aldizkariari dagokionez, hiru zenbaki berri argitaratu ditugu: 74 (Entzunez Eraiki), 75 (Sabino de Arana eta Goiri) eta 76 (Euskara bidegurutzean).

Beste erakunde eta instituzio batzuekiko harremanen esparruan, gogoz parte hartzen dugu beste fundazio, memoria-elkarte, udaletako ordezkari, aldundi, ikastetxe, Europako Alderdi Demokrata eta IED, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Euskaltzaindia eta abarrekin batera antolatutako ekitaldietan.

Halaber, Sabino Arana Sariaren XXXIV. edizioa antolatu dugu.

Hori guztia egiten dugu Sabino Arana Fundazioak eztabaidagune gisa duen ahalmena balioesteko. Gogoan izan behar da, bide horretan guztian, Sabino Arana Fundazioak askotariko gizataldeen aintzatespena eta babesa duela, bai gizarte-arloan, bai politika-arloan.

Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Garrantzi handiko lan horren zeregin behinenak dira Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharra egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

Artikuluak DEIA egunkariarentzat

Euskal historian eta antropologian oinarriturik, askotariko gaiak jorratzen dituzten artikuluak prestatu ditugu DEIA egunkariarentzat 2023ko ekitaldian, *Historias vascas* deritzon sailean.

Amaitu berri den ekitaldian, ondokoen ekarpena jaso dute Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak: Andres Urrutia (2), Iñaki Berasategi, Alexander Zapirain, Kike Infame-Alex Oviedo, Mikel Gómez-Jon Saez, Patxi Agirre, Gorka Ortega, José Ignacio Salazar, Aitor Pescador, Amaia Mujika-Esteban Cadarso, Eneko I. Erauzkin (2), Luis Javier Pérez, David Mota, Arantzazu Rojo, Juan Carlos Ramírez Escudero, Javier Barrio, Eduardo J. Alonso, Nere Jone Intxaustegi, Fernando Mikelarena, José María Arriola, Enrique Santamaría, José María Tápiiz (2), Óscar Álvarez, Jabier Aspuru (2), Javier Buces, Jon Irazabal, Begoña Villanueva, Aitor Miñambres, Nadia Andrea De Cristóforis, Jonan Zinkunegi, Adrián Almeida, Jean-Claude Larronde, Ernesto García, Koldo Somokueto eta Luis Bilbao.

Kolaborazioak irratietan

Era berean, kolaborazioak egin ditugu Onda Vaskan, eta Bizkaia Irratian noizean behin, historiari eta memoria historikoari lotutako gaien zabalkundea egiteko asmoz, gai horiei buruzko ezagutza gizartean hedatzearen. Era berean, gure historialarien aholkularitza edo ekarpena eskatu duten irratiei edo hedabideei ere lagundu diegu.

Historias vascas

Fundazioaren webgunean, Euskal Herriarekin eta bertako pertsona ospetsuekin zerikusia duten gertaera historikoen urteurrenak gogoratu ohi ditugu; agiritegiko dokumentu historikoak, argazkiak eta museoko piezak erakusten ditugu; liburutegiko eta hemerrotekako aleak ikusgai jarri; gaur egungo gizarteari interesatzen zaizkion gaien buruzko hitzaldiak partekatzen ditugu; ikus-entzunezkoak; modu batera edo bestera Euskadiko historian eragina izan duten gai historiko eta antropologikoei buruzko prentsa-artikuluak eskaintzen ditugu; gure historialariek irratian egindako elkarrizketak...

Sailak hiru atal dauzka:

- Urteurrenak, biografiak, gertaerak eta pertsonaia historikoak, erreportajeak... Atal hori egunero «elikatzen» da, astelehenetik larunbatera, eta egun batzuetan bi albiste ere igotzen dira, lotutako argazki (mila inguru) eta Sabino Arana Fundazioak koordinatu edo kudeatu duen gaiari buruzko PDF eta/edo erreportaje-audioekin batera.
- DEIA egunkarian, *Historias vascas* sailean argitaraturiko erreportajeak.
- Bideoak: Euskal gizartea XXI. mendean. Atal honetan, historialariek eta hainbat arlotako adituek (antropologia, kultura, ekonomia, soziologia...) astero-astero ekartzen dizkigute Euskal Herriaren historiako gertakari garrantzitsuen eta protagonisten inguruko testuak. Gure kultura, nortasuna eta iragana eraikitzeko ibilbidea.

Argitalpenak



¡SALVAD A LOS NIÑOS!

Historia del exilio vasco en Gran Bretaña (1937-1940)

Gregorio Arrien

Gregorio Arrien historialariaren “¡SALVAD A LOS NIÑOS! *Historia del exilio vasco en Gran Bretaña, 1937-1940*” liburua hezkuntzako profesionalek eta 1937an Britainia Handira ebakutatutako haurren senitartekoei berrargitaratzeko etengabe eskatzen dutela eta, Sabino Arana Fundazioak webgunean jarri du eskuragarri Ebook .

Sabino Arana Fundazioaren (SAF) lehen liburu elektronikoa da.

«Emakumeak aberria eginez. Emakume Abertzale Batza 100 urte» liburuaren aurkezpena

Karmele Perez Urraza, Begoña Bilbao Bilbao eta Gurutze Ezkurdia Arteaga UPV/EHUko *Garaian* taldeko historialariek «Emakumeak aberria eginez. Emakume Abertzale Batza 100 urte» lana aurkeztu zuten azaroaren 6an Gogora institutuaren egoitzan.

Sabino Arana Fundazioak argitaratu du liburua, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutuaren laguntzarekin. 1922ko maiatzean, estatuan sortu zen emakumeen lehen erakunde politiko abertzalearen ibilbidea ikertu da eginiko lanean. Ibilbide aurrendari hartan, Emakume Abertzale Batzak euskal emakume abertzaleek parte hartzeko nahia bideratu zuen; gizarte-lan garrantzitsua egin zuen kulturaren, hezkuntzaren, elkartegintzaren edo euskararen normalizazioaren esparruetan; gainera, Euskadiren eraikuntza nazionala helburu izan zuen jarduerak politiko biziari oratu zion

Aurkezpen ekitaldian, Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak «aitzindari horien ikusezintasuna saihesteko eta historian zehar egindako ekarpenen balioa nabarmentzeko» aldarria egin zuen. «Belaunaldi berriek emakumeen erreferenteak behar dituzte, eta ahalduntze-prozesuak erreferente historikoak ere behar ditu», aldeztu zuen.



BEKADUNAK

ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK (GRADUKOAK ETA GRADU-ONDOKOAK)

Gizarte-ikuspegiz den bezainbatean, gazteak prestatzeko konpromiso eta erantzukizunetik abiatuta, 2000. urtetik aurrera, Sabino Arana Fundazioak hainbat unibertsitatetako gradu eta gradu-ondoko ikasleen praktikak zuzentzen eta gainbegiratzen ditu, hain zuzen ere, unibertsitate hauetakoak: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, Madrilgo CEU San Pablo Unibertsitatea, Europako Ikasketen Proiektua, Connecticut College (USA), Guadalajarako Unibertsitatea (Mexiko), Nazioarteko Bikaintasun Kanpua, Hezkuntza Esparrutik Lan Arlora Igarotzeko Beken Programa, Novia Salcedo Fundazioa... Praktika horiek agiritegian, museoan edo Fundazioaren Prentsa Bulegoan egiten dira.

Ildo honi dagokionez, esan beharra dago Humanitateen arloko etorkizuneko ia ehun profesionalek (horietako batzuk dagoeneko lan-munduan ari dira) prestakuntza jasotzen jarraitu dutela gure instalazioetan.

Jardueron helburuak: gazteen beharrei erantzutea, gazte horien garapen pertsonalerako eta profesionalerako beharrezko tresnak izan ditzaten, eta lan-esperientziara hurbiltzen laguntzea.

HERMES PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

2023ko ekitaldian, Hermes aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu ditugu, hain zuzen ere, 74., 75. eta 76. zenbakiak.

74. zenbakia: «entzunez eraiki»



Maiatzean argitaratu zen. Sabino Arana Fundazioak Hermes pentsamendu eta historia aldizkariaren ale berezi bat (74. zenbakia) argitaratu du, EAJ-PNV alderdiak abian jarritako 'entzunez eraiki' entzute aktiboaren ekimenaren barruan 2022an egindako topaldietatik ateratako ideia eta ondorio nagusiak biltzeko.

Urte osoan, milaka pertsonak, besteak beste, alderdikideek, hainbat arlotako adituek eta, oro har, herritarrek, proposamenak eta eskaerak mahairatu zituzten euskal lurraldeetan egindako 250 bilera ingurutan. Alderdi jeltzaleak proposamen eta eskaera horiek guztiak jaso ditu, 2030 Agendarako estrategia lantzeko xedez.

Bestetik, Enrique Santarén kazetariak egindako elkarrizketa dela medio, entzute aktiboaren ekimena zuzendu duen Xabier Barandiaran Deustuko Unibertsitateko Soziologiako doktore eta EAJ-PNV alderdiaren Berrikuntza Politikoaren arloko arduradunak egindako hausnarketak jaso dira ale berezi honetan.

Burukide jeltzalearen arabera, «alderdi politiko bat etengabe erne ez badago gizarteak pentsatzen duenaren inguruan, gizartetik deslotzeko arrisku larrian dago eta hori baino eta hori baino gauza arriskutsuagorik ez dago». Barandiaranek dioen bezala, «alderdi bat iraunarazten duena gizartearekiko lotura da».

Saio berezi honetako kolaborazioen atalean, Sara de la Ricak, UPV-EHUko Ekonomia katedradunak eta ISEAKeko zuzendari nagusiak, Euskadik egun aurre egin behar dien eraldaketa handiak aztertu ditu; hala, adituaren arabera, «eraldaketa horiek orain arte gure gizartean nagusi izan den laneko paradigma aldaraziko dute». Lehenengo eraldaketak, trantsizio demografikoak, «langileen osaera aldatuko du, gure gizartearen zahartzea dela eta». Bigarrena, «iraultza teknologikoaren ondorioz gertatzen ari dena, enpresen laneko profilen eskaera aldatzen ari da». Eta hirugarrena «eraldaketa klimatikoa da eta horrek ondasun nahiz zerbitzu desberdinak ekoiztera beharko du, bai eta ekoizpen-prozesuak ere; gertaera horrek, zalantzarik gabe, aldaketak ekarriko ditu enpleguaren arloan».

Jorge Fernández Gómezek, Orkestrako Energia arloko koordinatzaileak, Euskadiko trantsizio energetikoari buruzko hausnarketa egin du, eta ondorioztatu du «Euskadi behar bezala prestatuta dagoela trantsizio iraunkorrari aurre egiteko, urteak eman baititu iraunkortasun-maila handiagoak lortzeko urratsak egiten». Hala berean, adierazi du «Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Legea onartzea mugari izango dela euskal ekonomiarentzat eta enpresentzat, eta trantsizio iraunkorrerako oinarriak ezarriko dituela, azken batean, herritarren ongizatea handitzeko helburuz».

Ion Muñoa Deustuko Unibertsitateko irakasleak garapen teknologikoz eta nortasun kolektiboan eraikuntzaz aritu da.

Miriam Ureta UPV-EHUko irakasleak politikari eragiten dion krisia eta herritarrek erakunde publikoekin duten harremanetan gertatzen ari diren aldaketak aztertu ditu.

Alberto Ortiz de Zarate desideDatum Company enpresako aholkularitza-zuzendariak azaldu du datuen digitalizazioak eta/edo erabilerak nola eragiten dion gure eguneroko bizitzari, bai bizitzeko moduari, bai lan egiteko moduari, bai eta balioa nola sor daitekeen datuak erabiliz gure administrazio publikoetan. «EAEk eraturiko datu publikoen sareari esker, Europako onenen artean kokarik dago. Euskadin, datu-multzo ugari daude eskuragarri, edozein erabileratan baliatzeko. Hala ere, kopurua ez da nahikoa», adituak esan duenez.

Bestalde, Jon Maia koreografo eta Kukai Dantza Taldeko zuzendariak azpimarratu du herri bateko kultura-eragileek berezko nortasunaren eraikuntzan duten eragin nabarmena. Izan ere, «Eta identitate hori eraldatuz doa, bai hazten, bai higatzen, une oro izaten ditugun jarrerak horri eragiten baitiote».

Rafa López Arostegui, hirugarren sektoreko adituak, gizarte-politika aztertu du eraldaketa-testuinguru baten baitan. Ildo horretan, adituak zehaztu du «helburua dela etorkizun partekatua irabaztea eta proiektu erkide eta iraunkorra eraikitzea, historian izan den euskal gizarte anitzagoarekin batera eta euskal gizarte horrentzat, gure ongizate- eta kohesio-mailan, hazkunde ekonomikoan eta giza garapenean aurrera eginez, gure babes-sistema eta ongizate-eredua bultzatuz».

Javier Cortés Fernándezek, Sare Sozialetarako UN Global Compact delako ekimenaren arduradun ohiak, Euskadik 2030 Agendaren GJHen lortzen daukan eginkizuna aztertu du, giza garapen iraunkorreko eredu baterantz abia gaituzten.

Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariaren esanetan, etorkizuneko euskal nortasuna «XXI. mendeko identitate desberdinak batzen dituen gakoaren oinarrituko dela, ez, orain arte bezala, bereizten gaituzten alderdietan».

Eta Iñigo Arbiok, Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Harreman eta Enpresa Diplomaziako Masterraren zuzendariak, Mendebaldeko demokraziak azkenaldian bizi izan ditugun krisi ekonomiko, politiko eta sozial guztien aurrean ditugun erronkak eta apustuak jorratu ditu.

74. zenbaki honetako ekarpen artistikoa Amaia Gracia Azquetak egin du. Gracia Azquetak Guggenheim Museoa eta Rekalde Aretoa (Bilbo) egin ditu banako eta taldeko erakusketak, bai eta CDANen (Huesca) eta Huarte Zentroan eta Zitudadelan (Iruñea).

75. zenbakia: «Sabino Arana Goiri»

Uztailean argitaratu zen. «Euzkotarren aberria Euzkadi da»: herri bat, nazio bat, hizkuntza bat, lurralde bat, kultura bat, identitate bat... Ikurrina, ereserkia, euskara prestigiozko komunikazio-hizkuntza gisa, herriaren instituzionalizazioa eta abar izan dira EAJk Sabino Aranaren ondaretik iraunarazi duen guztia» adierazi du Andoni Ortuzar EAJ-PNVren EBBko presidentek *Hermes* pentsamendu eta historia aldizkarian jasotako elkarrizketan, euskal abertzaletasunaren sortzailearen heriotzaren 120. urteurrena dela eta.

Xabier Lapitz kazetariaren eskutik, Andoni Ortuzarrek EAJren historiaren ibilbidea egin du ale berezi honetan (75. zk.), jatorritik gaur egungo jarretaraino.



Ortuzarrek, hasteko, azken hamarkadetan Eusko Alderdi Jeltzaleak gizarte aldakorrera egokitzeko izan duen gaitasuna azaldu du, bi esparrutan batez ere: «Duela 40 urte, erlijioaren eta ohituren arteko loturak eskuineko edo ordenako alderdi gisa irudikatzen zuten EAJ; gaur egun, aldiz, EAJ alderdi akonfesionala eta laikoa da, erakundeetatik Estatuko politikarik aurrerakoienak bultzatzen dituen alderdia».

EBBko presidentek nabarmendu du, hala berean, lortutako autogobernu mailak «arrakastaz hilaraz gaitzakeela».

«Nire ustez, autogobernu maila handia dela eta, herrigintzan aldarrikapen gutxiago eta norbere mailan errebindikazio gehiago egiten duen gizartean bizi gara», dio buruzagiak. Ildo horretan, Ortuzarrek azpimarratu duenez, «horren ondorioz, EAJ aldarrikapenak egiten eta helburu nazional handiagoak lortzen alderdi gisa bainoago, lortutakoaren administratzaile ikusten da alderdia... bere gogoz kontra».

Eta azpimarratu du oraindik ere urratu beharreko bidea badagoela aberri gintzan, gizarte-askapenean eta abarretan, «jendeak areago ikusten gaituelako gu autogobernu horren administratzaile, jauzi handiagoen ahalbidetzaile baino».

EAJ-PNVko Euzkadi Buru Batzarreko presidentearen iritziz, egungo gizartea eta 70-80ko hamarkadakoa guztiz desberdinak dira. «Gaurko gizartea ez da hobe, ez okerrago: desberdina da. Gizarte indibidualistagoa, ez hain kolektibista, non norberaren eskubideak taldearen eskubideen gainetik jartzen diren. Politika eta alderdiak aztertzerakoan, jendeak gehiago erreparatzen dio 'nirekin nola portatzen diren' egitateari 'gurekin nola portatzen diren' egitateari baino», adierazi du.

Ingurumari horretan, argitu du «EAJ politikaren 'rara avis' gara: errituen alderdi bat izaten jarraitzen dugu, kolektibitatearen alderdi bat, siglak pertsonak baino garrantzitsuagoak diren alderdia, pertsonak ere oso garrantzitsuak izan arren».

Ildo horretan, ikasbiderik aberatsena zatiketarik atera zuela dio: «Ondo ikasi genuen pertsona bat oso garrantzitsua izan arren, xarma handia izan arren, ezaugarri on asko izan arren, ezin duela inoiz taldea eta alderdia bera ordeztu».

Azken hauteskundeetako emaitzei dagokienez, «aintzat hartu» dituela eta «gauza batzuk aldatu behar ditugula» adierazi du. «Agian ez gara enpatikoak izan laguntza eman diegun baina gertu sentitu ez gaituzten gizatalde batzuekin. Jende horrekiko lotura berreskuratu behar dugu, ez soilik interes politikoagatik eta botoagatik, gure gizartearen muinaren atal ere badelako baizik» esan du.

Sabino Arana Goiriren heriotzaren 120. urteurrenaren kariz argitaratutako *Hermes*-en ale berezi honetan, euskal abertzaletasunaren lehen buruzagiaren bizitzari, lanei eta ingurumari historikoari buruzko adituen artikulak bildu dira, hala nola ondoko hauenak: Jean-Claude Larronde, Baionako Abokatuen Elkargoko abokatu emeritua; Joseba Agirreazkuenaga, UPV/EHUko Historia Garaikideko katedraduna; José Ignacio Salazar Arechalde legelaria; Óscar Álvarez Gila, UPV/EHUko Amerikako Historiako irakasle titularra; eta Gotzon Lobera Revilla, euskaltzain urgazlea, Zuzenbidean lizentziatua eta zinpeko itzultzailea.

76. zenbakia: «Euskararen biziberritzea bidegurutzean»

Abenduan argitaratu da. Euskara berreskuratzeko prozesua biziberritzeko eta birbideratzeko balioko duten estrategiak eguneratu eta/edo birpentsatu beharra dago hainbat eragileren

jomugan, gizarte-eragileen nahiz herri erakundeen iritzira, bai eta hizkuntzaz arduratzen diren beste aditu batzuen ikuspegian ere.

Euskaltzaindiarekin lankidetzan, Sabino Arana Fundazioak auzi hori aztertzeke eta eztabaidatzeko gonbita egin die adituei *Hermes* aldizkariaren azken alean. Erramun Osa Akademiaren idazkariorde eta euskaltzain urgazleak koordinatu du argitalpena.



Monografikoak honako hauen ekarpenak bildu: Miren Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde ohia; Gotzon Egia, Euskararen Aholku Batzordeko kidea; Garikoitz Goikoetxea, euskara teknikaria; Gotzon Lobera, abokatua eta euskaltzain urgazlea; Irati Iciar Madinabeitia, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria; eta Gonzalo Larruzea, Didaktikan eta Eskola Antolakuntzan doktorea eta Hezkuntzako ikuskari ohia.

Elkarrizketan, Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako bozeramaile eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, Enrique Santarén kazetariaren galderei erantzun die eta euskararen etorkizuna eta erronkak aztertu ditu; ildo horretan, ziurtatu du azkena eta premiazkoea dela «digitalizaziorako eta adimen artifizialerako sarbidea».

Era berean, sailburuak «babes juridiko handiagoa» eskatu du, «euskararen normalizazioari buruz hartzen diren erabakiek berme handiena izan dezaten», eta azpimarratu du ez lituzkeela «euskarari buruzko epai judizial guztiak zaku berean sartuko. Kezkatzen nauena bada Alderdi Popularrak eta VOXek bultzatu duten hizkuntzaren erabilera politikoa eta judizializazioa».

76. zenbaki honetako ekarpen artistikoa Peru Ajuria argazkilariak egin du: 1983ko abuztuko argazki-bilduma da, eta erretratu haietan, egileak Bilboko hiriaren nahiz Euskadiren etorkizuna aldatu zuten uholdeen irudiak jaso zituen.

5 GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA

Mintegiak

5.1 EUSKADI THINK NEXT (2 mintegi)

2023. urtearen amaieran, «Euskadi Think Next» deritzon ekimena jarri dugu martxan, hain zuzen ere, ideien laborategi bat, Euskadi «bizitzeko lekurik onena» bihurtuko duten politika publikoak diseinatzeko helburuz. Aurkezpenean, Xabier Barandiaran proiektuaren zuzendariak aurreratu zuen legez, «ospe handia duten eta EAJ-PNV alderdiarekin loturarik ez duten pertsonak aurrendariak izango dira hausnarketa-prozesuak gidatzen, ondorioak sortzeko eta ideiak ateratzeko orduan».



Euskadi Think Next «ikasteko, partekatzeko, eztabaidatzeko, sortzeko eta politika publikoak proposatzeko bilgune gisa sortu da, Euskadiren demokrazia, gizartea, ekonomia eta kultura indartzen lagundu nahi duten pertsona eta erakundeekin batera, ziurgabetasun eta aldaketa sakoneko ingurumari honetan».

«Euskadi Think Next» ekimenean jorratuko diren hamar mintegietako lehena azaroaren 29an egin zen,

«Polarizazioa, demokraziaren haustura» izenburuaren ildoan. Míriam Juan-Torres, Berkeleyko Unibertsitateko Democracy & Belonging Forum Institutuko Ikerketa zuzendariak eta Luis Miller CSICeko Politika eta Ondasun Publikoen Institutuko zientzialari titularrak polarizazio politikoaren gaia eta horrek demokraziarentzat ekar ditzakeen arriskuak aztertu zituzten.

Bigarren topaketa abenduaren 20an egin zen, «Politika eta komunikabideak: komenientziatzko harremana?» izenburuaren ildoan, eta Lola García *La Vanguardia* egunkariko zuzendari laguntzaileak eta Daniela Álvarez *Ac2ality* hedabide digitalaren sortzaile eta editoreak parte hartu zuten.



5.2 «Euskadin izan diren eraldaketa handiak» (5 mintegi)

Topaldi-mintegien ziklo hau 2022ko irailaren 16an jarri genuen abian eta, harrezkero, Euskal Autonomia Erkidegoak azken 30-40 urteetan ekonomia, bizikidetzatza, administrazioa, gizartea, industria, teknologia edo ingurumenaren arloetan egindako bidea aztertu dute hainbat adituk. Dagoeneko, ondokoek parte hartu dute ekimen honetan: Asier Alea eta José Luis Ruiz de Muniain ekonomialariak, Juan M^a Atutxa, Paul Ríos (Lokarriko koordinatzaile ohia), Javier Bikandi (Eusko Jaurlaritza), Ina Etxebarria (Getxoko Udala), Daniel Innerarity (Filosofia Politikoko katedraduna), Xabier Aierdi (Soziologiako doktorea).



2023ko lehen sei hilekoan, industrian, teknologian eta ingurumenean, euskara eta euskal kulturaren izandako eraldaketak jorratu ditugu eta Euskadiren nazioarteko proiektzioa jorratu ditugu.

Ildo horretan, urtarrilaren 20an, Jon Azua EnovatingLab-eko presidente eta Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde eta Industria eta Energia sailburuak 1991-1995 aldian, eta Guillermo Dorronsoro Deusto Business School-eko Berrikuntzaren Ekonomia, Estrategia eta Kudeaketako irakasleak industriako eraldaketa aztertu zuten, hots, Euskal Autonomia

Erkidegoaren eta Nafarroaren etorkizuneko apustu estrategikoen zutabeetako bat.

Azuak eta Dorronsorok adierazi zuten, estatuaren testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Komunitatea izan direla azken hamarkadetan bertoko industria defendatzen jakin izan duten bi erkidegoak. «Egoera hobetik abiatzen bagara ere, industria-lidergoari eusteko ahaleginak eta bi egin beharko ditugu, lehia handiagoko ingurumari honetan» ondorioztatu zuen Dorronsorok.

Otsailaren 17an, Álex Rayón Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Harremanen eta Eraldaketa Digitalaren errektoreordeak eta Deusto BigData-ren zuzendariak «Eraldaketa teknologikoa» aztertu zuen. Rayonek Internetek, plataforma digitalek eta sare sozialek nahiz informazioaren teknologiek hainbat gizarte-esparrutan duten eraginaz jardun zuen. Zehazki, Deusto BigData-ren zuzendariak datuen analisiaren aukerak ondoen ezagutzen dituen adituetako bat eta, azken iraultza teknologikoaren zale sutsua izanik, azken joera digitalak, enpresako eraldaketa digitala eta Big Data erakundearen prozesuetan duen eragina jorratu zituen, besteak beste.



Eta martxoaren 17an, Orkestra, Lehiakortasunaren Euskal Institutuko presidente Ivan Martenek, eta Fernando Tempranok, Talantiaren sortzaileetako bat eta Repsoleko I+G eta Teknologia zuzendari ohiak 30 urtetan baino denbora luzeagoan, «Ingurumen-eraldaketa» aletu zuten, hala nola «Euskadin dagoeneko martxan dagoen deskarbonizatze-bidea».

Ivan Martenen tesia izan zen gizartea deskarbonizatu behar dugula, «ahalik eta azkarren, baina gizarte-kosturik txikiena eraginda». Hala, Martenek adierazi zuenez, «helburu nagusia argi dago, baina trantsizioaren bidea, oster, zehazteke dago oraindik».

Beste alde batetik, Fernando Tempranok gogorarazi zuen Europar Batasuneko ingurumen-politikek eta -erregulazioek zehaztu dituztela EBko herrialdeen industria- eta energia-ereduak,

eta adierazi zuen «egiazatu dela politika horren ondoriozko eredu energetikoa (oinarririk behinenekotzat energia-hornidura segurua eta eskuragarria bermatzea zuena) ez dela baliagarria izan». Fernando Tempranoren aburuz, «gasari dagokionez, bereziki frogaturik geratu da ez dela gauza izan hornidura segurtasunez bermatzeko».

Ingurumena zaintzeko Talantia deritzon start-up delakoaren sortzaileetakoaren ustez, «deskarbonizazioaren eta, beraz, sorkuntza berriztagarriaren eta mugikortasun elektrikoaren aldeko apustu bizkorrak gasaren arrisku bera edo handiagoa dauka horniduraren segurtasunaren ikuspegitik».

Apirilaren 21ean, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak, gaur egun, Agirre Lehendakaria Fundazioaren lehendakaria denak, Kirmen Uribe idazleak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Kike Amonarriz filologo eta soziolinguistak euskararen eta euskal kulturaren etorkizuneko planak eta erronkak azaldu zituzten, duela hamarkada gutxi arte familiaren esku egon direnak eta, gaur egun, eremu tradizionaletik hara zabaldu nahi dutenak.



Sabino Arana Fundazioak antolatutako «Euskadin izan diren eraldaketa handiak» zikloaren azken jardunaldian, Euskadik munduan daukan zeregina aztertu zen.

Marian Elorza Eusko Jaurlaritzako Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako idazkari nagusia eta Izaskun Bilbao Europako Parlamentuko kidea Euskadi nazioartean posizionatzeko bidean ditugun erronka eta mehatxu nagusiez mintzatu ziren.

Elorzaren esanetan, «Euskadiren etorkizuna agertoki edo ingurumari globalean jokatu da». Eta «aldaketa geopolitiko sakonak eta eredu sozioekonomikoaren trantsizio hirukoitza nahiz egundoko eraldaketa gertatzear daudela, Euskadiren nazioarteko hedapenean sakontzea erronka eta herri-apustu bilakatu zaigu», adierazi zuen.

Elorzaren arabera, «Euskadi Basque Country-ren kanpo-posizionamendua hobetzea, ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea, Europako proiektua eraikitzen parte hartzea eta partaide izatea eta erronka globalak konpontzen laguntzea ditugu euskal kanpo-agenda eta ehuntzen ari garen nazioarteko aliantzak egituratzen dituzten ardatzak».

Beste alde batetik, Izaskun Bilbao europarlamentariak nabarmendu du «Europar Batasunak erantzun indartsu eta eraginkorra eman duela azken urteotan bizi izan ditugun krisi global handiei eta Errusiaren mehatxuari «ahots bakar eta irmoz» emandako erantzun sendoa nabarmendu zuen. Europaren Etorkizunari buruzko Konferentzia (CoFoE) abian jartzearen egokitasuna ere azpimarratu zuen, bestelako gobernantza-eredu batean sakontzeko helburuz.



Azkenik, Europako parlamentari jeltzaleak azaldu zuen «egoera horretan, ezinbestekoa dela Europako Parlamentuan ordezkaritza izatea erkidegoko arauak egiten esku hartzeko, onenengandik ikasteko, zer eman dezakegun erakusteko eta, Europar Batasunaren baitan, euskal kulturak eta erakundeek dituzten kezak, ahotsa eta aniztasuna Bruselara zein Estrasburgora eramateko».

5.3 Kultura demokratikoan sakontzen. Burujabetasunaren bidean

Martxoaren 22an, Oreki Fundazioarekin elkarlanean antolatutako mintegian, Xabier Barandiaranek eta Iñaki Goigana soziologo eta historialariak jardun zuten hizlari, hurrenez hurren.



Barandiaranek euskal herritarrok burujabetza lortzeko etorkizunean izango ditugun erronkak eta zailtasunak azpimarratu zituen. Bestetik, Goiganak jeltzaleen nazionalismoak autonomia lortzeko iraganean egindako bideak aldarrikatu zituen, baita subiranotasuna demokrazia eta

gizartearen ongizatea lortzeko tresna gisa nola ulertu zuten ere, eta bi elementu horiek –demokrazia eta ongizatea– aldarrikatu zituen subiranotasunaren ezinbesteko ezaugarri gisa.

Hitzaldiok entzun ondoren, unibertsitate, enpresa, ekonomia, kultura eta abarretako 25 ordezkariak kultura demokratikoari buruzko hausnarketa egin zuten, subiranotasunaren bidetik, eta, azkenik, gainerako parte-hartzaileekin partekatu zituzten ondorioak.

5.4 Lehiakortasuna eta jasangarritasuna, etorkizuneko erronka teknologiko eta energetikoen ardatz

Europako Alderdi Demokratikak (EDP-PDE), Sabino Arana Fundazioarekin batera, jardunaldi bat antolatu zuen datozen urteotan Europak aurre egin beharreko erronka eta lorkizun teknologiko eta energetikoak aztertzeko helburuz. Jardunaldi hartan, Europako adituek eta euskal industriaren eta enpresen ordezkari nabarmenek parte hartu zuten.



«Lehiakortasuna eta iraunkortasuna etorkizuneko erronka teknologiko eta energetikoen ardatz» izenburua izan zuen jardunaldi horren hasieran, Sabino Arana Fundazioaren presidente Mireia Zaratek «deskarbonizazioaren premia larria» eta «energia garbien inplementazioa» azpimarratu zituen.

Beste alde batetik, Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak adierazi zuenez, Euskadi engaiatuta dago garapen jasangarriarekin eta nazioartean adostu diren klima-helburuekin, eta berretsi egin zuen «bide onetik goazela, 2050. urtean, karbonoari dagokionez lurralde neutroa eta klima-aldaketaren ondorioen aurrean, lurralde erresilientea izateko».

Era berean, «paradigma aldatu dela» eta «Euskadi ere aldatzen ari dela» esan ostean, Arantza Tapiak ziurtatu zuen «deskarbonizazioaren arloan lortutako emaitza batzuek argiro erakusten digutela bide onetik goazela», baina, bestetik, zehaztu zuen «ezin garela horrekin konformatu». «Anbizioz jokatu eta erritmoa bizkortu behar dugu», esan zuen.

Beste alde batetik, Sandro Gozi PDE-EDP alderdiaren idazkari nagusiak adierazi zuenez, «Europar Batasunaren energia-politikaren eraldaketa lehentasunezko auzia izan da urte askotan estatu kideentzat eta, are gehiago, Errusiak Ukraina inbaditu ondotik». Ildo horretan,

azaldu zuen «Errusiako petrolioaren eta gasaren mendekoak ziren Europako herrialde askok estrategia aldatu behar izan dutela eta eraldaketa ekologikoari ekin».

Ivan Martén Orkestra-Lehiakortasunaren Euskal Institutuko presidenteak trantsizio energetiko zer-nolako testuinguru geopolitikotan txertatu behar den aztertu zuen. Geroago, Christopher Grudler Industria, Ikerketa eta Energia Batzordeko europarlamentariak energia berriztagarrietan eta energia nuklearrean inbertitzearen alde agertu zen. «Energia-iturri garbiak eta deskarbonizatuak dira, eta isuriak murrizten eta 'berotze globalari' aurre egiten lagun diezagukete. Frantzian, esaterako, energia nuklearraren bultzada ikusten ari gara, 6 zentral nuklear berri eraikitzeke proiektua dela eta. Frantziako gobernuak zentral nuklear berrien garapena zamatzen duen izapidetze administratiboa arintzeko legea ere onartu du. Baina bultzada hori ez da Frantzian bakarrik gertatzen ari, Europako beste herrialde askotan ere jazotzen ari da», ziurtatu zuen.

Beste alde batetik, Christof van Agt Ross Riad hirian (Saudi Arabia) dagoen Energiaren Nazioarteko Foroaren (IEF) zuzendariak adierazi zuenez, etorkizun jasangarria izango badugu «industria berri eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremanak ondo arautu behar ditugu». Halaber, adituak azpimarratu zuenez, «energiaren merkatua eta energia-politika berrorekatu behar ditugu, hazkunde iraunkorra murriztu gabe eta klima-helburuei uko egin barik».

Ondokoek ere parte hartu zuten jardunaldian: Izaskun Bilbao europarlamentariak, Iñigo Ansola EEEko zuzendari nagusiak, Aitor Arzuaga ALBAko (Repsol-Petronor Taldea) zuzendari nagusiak, José Ignacio Hormaeche Energiaren Euskal Klusterreko zuzendari nagusiak, Jesús Valero TECNALIAko zuzendari nagusiak eta Xabier Viteri Iberdrolako Berriztagarrien Negozio zuzendariak.



5.5 Larrialdi klimatikoa. Lankidetzaren deszentralizatuaren erronkak

Klima-aldaketaren arloko eta garapenerako lankidetzaren arloko adituek aztertu zuten Sabino Arana Fundazioan klima-aldaketak planetako eremu pobreenetan daukan eragina, bereziki, Afrikan, bai eta klima-aldaketak generoaren aldagaiekin daukan erlazioa ere.

Hizlariak ondokoak izan ziren: Jaime Mira Etiopia Garatzeko Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziako (AECID) kidea, M^a Mar Alonso IHOBE Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko Ekintza Klimatikoaren zuzendaria eta Macarena Larrea Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikertzailea.

Jaime Mirak azpimarratu zuen «Afrikako kontinentea neurritz gaindi ari dela sufritzen berotze globalaren ondorioak, berotze hori sorrazteko ezer gutxi egin duen arren. Desberdintasun handia dago herrialde eragileen eta gertakari global horren aurrean ahulenak direnen artean. Horregatik, Afrikarekiko justizia klimatikoa funtsezkoa da erronka global horri ekitatez heltzeko», azpimarratu zuen.



Beste alde batetik, M^a Mar Alonsok nabarmendu zuenez, «genero-desberdintasunak eragin handiagoa du emakumeengan, eta klima-aldaketari aurre egiteko aukera desberdinak sortzen ditu».

IHOBERen Klima Ekintzaren arloko zuzendariaren esanetan, «generoaren zeharkakotasuna politika publiko guztietara hedatu behar da. Ingurumen-politikak, gainerako politikak bezala, ez dira neutroak generoari dagokionez, eta, hortaz, desberdintasunak betikotu ditzakete, berdintasun-politikekin lerrotzen ez badira. Horregatik, genero-justizia eta klima-justizia eskutik helduta joan behar dira. Horrela, klima-ekintzari buruzko politikek lagundu ahalko dute desberdintasunak desagerrarazten».

Amaitzeko, Macarena Larreak, Deustuko Unibertsitateko Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko Energia eta Ingurumen Laborategiko ikertzaileak, biztanle ahulenei bereziki eragiten dioten ondorio jakin batzuk doi-doi aletu ditu: pobrezia, elikagaien segurtasun eza eta migrazio-mugimenduak.

Amaitzeko, Macarena Larreak, Deustuko Unibertsitateko Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko Energia eta Ingurumen Laborategiko ikertzaileak, biztanle ahulenei bereziki eragiten dioten ondorio jakin batzuk doi-doi aletu zituen: baliabide natural berriztagarrien eta ez berriztagarrien ustiapena; espazioaren okupazioa (nekazaritza, abeltzaintza, eta beste jarduek batzuk garatzeko) eta horiek dakarten biodibertsitatearen galera, isuri kutsatzaileak...

«Helburuetako bat da ekintzak garatzea larrialdi klimatikoaren ondorio txarrenek munduko gizatalde pobrenei zuzen-zuzenean eragin diezaiten saihestea, Europako Itun Berdearen 'ez

duzu kalterik eragingo' oinarria, trantsizio-prozesuak irauten duen bitartean, Erkidegoko mugetatik harago betez», azaldu du ikertzaileak.

5.6 Funts pribatu eta pertsonalak (XIX eta XX. mendeak) agiritegi historikoetan

Ondare dokumentala memoria kolektiboaren zati garrantzitsu eta zehatz gisa balioesteko xedez, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak antolatutako jardunaldien esparruan, azaroaren 7an, Euskadiko Artxibo Historikoarekin lankidetzan, artxibo historikoetan gordetako funts dokumental pribatu eta pertsonalei (XIX. eta XX. mendeak) buruzko mintegia egin genuen.



Borja Aguinagalde Euskadiko Artxibo Historikoaren (EAH) zuzendariak «Publikoak ez diren artxibo-funtsak biltzeko EAHren politika» azaldu zuen; Miquel Pérez Kataluniako Arxiu Nazionaleko Hedapen arduradunak Arxiu-aren jardunbidea aurkeztu zuen. Miren Barandiaran Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren dokumentazio-zentroko arduradunak eta Iñaki Goiogana Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko artxibozainak fundazioek (ekimen pribatuak diren aldetik) alor honetan duten esperientzia azaldu dute.

Arlo horri lotutako zentroetan, hala nola dokumentazio zentroetan, artxiboeta, liburutegietan eta abarretan lan egiten duten 70 profesional inguruk parte hartu zuten jardunaldian.

5.7 Euskal kulturaren memoria: arte eszenikoak



Beste alde batetik, Hezkuntza sailburuorde Begoña Pedrosak Hezkuntzaren lege berriak hizkuntzen ikaskuntzaren esparruan dituen erronkei eta, batez ere, dakartzan aukerei buruz hitz egin zuen. Pedrosak nabarmendu zuenez, «gure sistemako ikasleek euskaraz zein gaztelaniaz komunikatzeko gaitasuna hobetzeko eta atzerriko hizkuntzetan trebatzeko apustua egiten du lege honek».

Hala, sailburuordearen esanetan, legeak bidea ematen du «curriculumeko hizkuntzen tratamendu integral eta integratua lantzeko esparru propioa gara dezagun, hau da, tresna berriak garatu eta ikastetxeko hizkuntza-proiektuen plangintza hobetzeko gako garrantzitsuenetako bati ekin diezaiozun». Bestetik, Euskal Hezkuntza Sistemako unibertsitateekin batera abian jarri den elkarlaneko ikerketa azpimarratu zuen, «praktikan oinarritua, ikerketan funtsatirko erabakiak hartzen lagunduko baitu».

Jardunaldian, hizkuntzen ikerketaren eta ikaskuntzaren arloan ospe handia duten bi irakasle izan ziren. Alde batetik, Jasone Cenoz, Euskal Herriko Unibertsitateko katedradunak azken 40 urteotako ikerketak eman duena laburbildu zuen. Geroago, Roberto Mielgo Begoñako Andra Mari Irakasle Eskolako irakasle eta ikertzaileak azken hogeita hamar urteotan irakasleen prestakuntzan izan ditugun erronkak azaldu zituen, eta etorkizunean hizkuntzak irakasteko lehentasunak eta bideak zein izango liratekeen aletu zuen.

Jardunaldiaren amaieran, mahai-inguru bat egin zen eta, horretan, ikastetxeek euren esperientziak aurkeztu zituzten eta etorkizuneko erronkei buruz eztabaidatu zute. Mahai-inguruan, ondokoek parte hartu zuten: Galdakaoko Eguzkibegi ikastolako Itxaso Etxebarria, Barakaldoko Gurutzeta HLHIko zuzendari Mikel Juaristi, Gasteizko Calasanz ikastetxeko koordinatzaile pedagogiko Jone Lopetegi eta Zarauzko Lizardi Bigarren Hezkuntzako Institutuko Marina Aranzabal.



Hitzaldiak eta mahai-inguruak

5.9 «Urraca, cazador de rojos», dokumentalaren aurkezpena (gaztelaniaz) Pedro de Echave zuzendari eta gidoilariaren eskutik

Otsailaren 14an, Gerra Zibileko erbesteratuak desagerrarazi, estorsionatu eta jazartzeko Francisco Francoren diktadurak antolatutako errepresioaren operazioen burua, Pedro Urraca Rendueles, erretratatzeko duen dokumentalaren gaztelaniazko edizioa aurkeztu genuen. Bertan

ageri den pertsonaren kontakizun historiko edo biografikoa baino zerbait gehiago da filma. Bere seme Jean Louisen eta biloba Loretoaren begirada kritikotik eginda dago, nolabait esatearren, Pedro eta Hélène gurasoen biktima izan direnen begirada kritikotik, eta euren ekintzak jendaurrean gaitzesten dituzte eta urteak daramatzate ondare beltz horretatik aldentu nahian.



Emanaldiaren ostean, bertaratutakoek Pedro de Echave dokumentalaren zuzendari eta gidoilariarekin hitz egiteko eta iritziak partekatzeko aukera izan zuten.

«Urraca. Cazador de rojos» Quindrop Produccions Audiovisuales eta Sègula Films-ek ekoitzi dute, Televisió de Catalunya, TVE eta IB3 telebistekin elkarlanean.

5.10 «Manuel Irujo: kristaua, demokrata eta euskalduna» liburuaren aurkezpena

Patxi Agirre Arrizabalaga historialariak, Mireia Zarate Sabino Arana Fundazioaren presidenteak eta Iñaki Anasagastik lagundurik, «Manuel Irujo: cristiano, demócrata y vasco» deritzon liburua aurkeztu du gaur arratsaldean SAFen egoitzan.

Honako lan hau egilearen doktoretza-tesiaren emaitza da, eta historialari batzuek Manuel Irujoren biografiatzat hartu dute, hots, XX. mendearen lehen erdian piztu zen euskal abertzaletasunaren modernizazioaren eragile nagusietakoaren biografiatzat, erlijioa kontakizunaren ardatz hartuta.



Ikerketak Manuel Irujo Olloren bizitza osoa jasotzen du, politikariaren haurtzarotik Nafarroako Lizarran hil zen arte, eta bereziki, bere bizitza politikoa biziagoa izan zen garaia jorratzen du, hala nola Gerra Zibilaren aldia.

Patxi Agirreren liburua argitaratzailearen webgunean (Espainiako Justizia Ministerioaren webgunean) dago eskuragarri, eta doan deskarga daiteke:

https://www.mjusticia.gob.es/es/AreaTematica/DocumentacionPublicaciones/InstListDownload/IRUJO_TEX_WEB.pdf

5.11 «Picasso presents Gernika», 1937ko bonbardaketari eta umeen erbestealdiari buruzko dokudrama

Martxoaren 28an, «Picasso presents Gernika» dokudrama historikoa aurkeztu genuen SAFen. 35 minutuko dokumental honen gidoia Begoña Etxeberria eusko-kaliforniarrak egin du eta Annika Speer-ek, Kaliforniako Unibertsitateko (Riverside) Antzerki, Zinema eta Ekoizpen Digitalaren saileko irakasleak, zuzendu. Bertan, hegazkineria faxistak, 1937an, Gernikan eginiko bonbardaketaren ondorioak jorratzen dira eta aireko gerraren eraginez, familiatik banandu eta atzerrira ebakatu behar izan ziren umeen bizipenak aletzen dira.



Emanaldiaren ondoko eztabaida-saioan, Annika Speer zuzendariak eta Derek Doyle Bilbon izandako aurreko britainiar kontsulak eta «Basque Children 37 UK» elkarteko kideak parte hartu zuten.

5.12 Toti Martínez de Lezea, «Liburuen txokoa»



Toti Martínez de Lezea idazleak hasiera eman zion Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatutako «Liburuen txokoa» hitzaldien ziklo berriari, apirilaren 19an.

«Liburuen txokoa» delako jardueraren helburu nagusia haxe da: irakurleak idazleen lanetara hurreratzea, benetako protagonisten eskutik hurreratu ere, hau da, idazleen euren eskutik.

Asmoa da sorkuntzari buruzko esperientziak eta hausnarketak partekatzea irakurleekin, liburuak liburudendetara iritsi aurretik idaztearen atzean zer dagoen aztertu eta irakurtzeko ohitura sustatzea.

Lehenengo gonbidatuak, Toti Martínez de Lezeak, «Idazlearen lanbidea» gaia jorratu zuen.

5.13 Hitzaldi-zikloa Helduak Elkartearekin (3 hitzaldi)

(1) Delitu informatikoak prebenitzeko aholkuak

Interneten erabilera intentsiboa dela eta, delituzko iruzurrak ugaritu egin dira, hala nola ziberbullyinga, phishing-a, carding-a eta abar. Beraz, gero eta beharrezkoagoa da ziberdelitugileen aurrean prest egotea.

2013. urtetik, *Helduak* elkartearekin batera adineko pertsonak gehien kezkatzen dituzten gaiei buruz antolatzen ditugun hitzaldien esparruan, apirilaren 27an, Ertzaintzaren Idazkaritza Nagusiko bi eratzainek, Lander Jauregik eta Iker Legardonek, hain zuzen ere, sarea erabiliz egiten diren iruzurrik ohikoenetako batzuetan delitugileek izan ohi duten jokabidea azaldu ziguten, eta horrelako delituak prebenitzeko jarraibide batzuk eman zizkiguten.



(2) Mendeko pertsonen zaintzaren bidean aurrera egiteko aholkuak eta estrategiak

Irailaren 27an, Ana Tejedor Zaintzea elkarteko psikologoa zaintzaileen eta zaintza behar dutenen arteko interdependentziaz aritu zen. Tejedorrek laguntza behar duten pertsonen zaintzaileentzako aholkuak eta estrategiak eskaini zituen. Zaintzea bezain garrantzitsua baita nork bere burua zaintzen jakitea. Hori da Zaintzea programaren helburua, zaintzaileen eta zaindutako mendekoen bizikaltatea hobetzea. Hori guztia, zaintzaileentzako



prestakuntza-ekintzen, informazioaren, laguntza psikosozialaren eta autolaguntza-taldeen bidez.

(3) Mendekotasuna duten pertsonak etxean mobilizatzea

Azaroaren 9an, Markos González gerokultoreak oinarrizko arau biomekanikoei buruzko eduki batzuk azaldu zituen, mendekotasun-egoeran dagoen pertsona mobilizatzen eta lekualdatzen laguntzeko.

Era berean, mobilizazio eta lekualdatze horiek segurtasunez egiteko tekniketako batzuk azaldu zituen, bai mendekotasuna duen pertsonarentzat, bai zaintzailearentzat. Markos Gonzálezen arabera, oinarrizko eduki horiek oso lagungarriak dira eguneroko zaintzari lotutako zereginak egiteko, hala nola higiena, txizoihalak aldatzea, mendeko pertsonari komunera laguntzea...

Saio honen helburu nagusia izan zen parte-hartzaileek segurtasun handiagoa izan dezaten teknika horiek aplikatzerakoan eta mendekotasuna duten pertsonen zein euren buruari min egiteko aukerak murriztea.



5.14 Athletic-ekin batera, 1983ko txapelketa gorazarre



Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatutako «Guztiontzako kirola» hitzaldi-zikloaren esparruan, maiatzaren 3an, Athletic Clubek Kanaria Handiko Las Palmas taldearen *Insular* zelai zaharrean lortutako zazpigarren Liga txapelketa gogora ekarri genuen.

TeleBilbaoko aurkezle eta kirol kazetari Eduardo Velascok moderatuta, Athleticeko jokalaria ohi Daniel Ruiz Bazanek eta prestatzaile fisiko ohi Manolo Delgado Mecok gogora ekarriko digute garaipen gogoangarri hura, Athletic Club hiru hamarkada eman baitzituen taldearen arasetara Liga txapelketarik ekarri barik.

Ekitaldiaren hasieran, Manolo Delgadok Euskal Abertzaletasunaren Museoari eman zion doahaintzan 2007an, Venezuelan, erositako baloi bat, Euzkadiko hamaikako osoak sinatutakoa euskal taldeak diktadura frankistaren ondoren egin zuen lehen irteeran.

5.15 Luis Alavaren erailketaren 80. urteurrena

Hitzaldia: «Álava sarea. Urpean ibili oxigeno-botila barik auzipetzean»

Txema Montero abokatua Luis Alavaren erailketa ekarri zuen auzipetzeari buruzko hitzaldia eskaini zuen maiatzaren 4an. Alava sarea talde antifaxista bat izan zen, gehienbat emakumeek

osatua, eta Agirre Lehendakariaren Gobernuak proposatuta, inteligentzia lanak egin zituen 1936ko Gerran eta gerraostean, baita Bigarren Mundu Gerran ere, aliatuen alde.

1940ko azaroaren 21ean, Frankismoari atxikitako Goi Estatu Nagusiaren txostena heldu zen Madrilera. Txosten horretan zehazten zenez, Poliziaren Kanpo Zerbitzuak eskuratu zuen agiria. Hain aurkikuntza bikainak erregimenaren polizia mugiarazi zuen, eta hilabete eskasean, lehen atxilotetak egiten hasi zen. Hala, abizen hori zeukan ingeniari gasteiztarra arduradun nagusia zuen «Alava sarea» deiturikoa antzeman zuen. Luis Alava atxilotu, heriotza-zigorra ezarri eta fusilatu egin zuten. Sareko partaideen artean, Bittori Etxeberria, Itziar Mujika, Maria Teresa Verdes eta Delia Lauroba (erresistentziaren egiazko heroiak) nabarmendu behar ditugu. Guztira, sareko 21 kide atxilotu eta auzipetu zituzten, baina, azkenean, zigorra konmutatu zieten.



Lau emakume heroi, gizon on bat eta emakume solidario askoren istorioa da; Monterok esan bezala, «beste herrialde batzuetan, Frantzia, Holandan edo Alemanian bertan, gaurik iluneneko erresistente horiei monumentu edo zenotafio bat altxatzea merezi duen istorioa».

5.16 *Ukraina lubakietatik, María Senovilla kazetariaren begietatik*

Nazioartean, gatazka armatu eta krisi humanitarioen berri ematen duten emakumeen kopurua gizonena baino askoz txikiagoa da. Maria Senovilla, gerrako berriemailea, gaur egun Ukrainan dagoena, eta argazkilari independentea, Fundazioan izan zen, Euskal

Abertzaletasunaren Museoak gonbidatuta, bere esperientzia azaltzeko eta gerrako berriemaileen arteko genero-berdintasuna eskatzeko. Senovilla Ukrainan, 300 egun baino gehiago eman ditu gerra-eremuan, eta haren kronika eta argazkiak hedabide entzutetsuetan argitaratu dira, hala nola *New York Times*, *Washington Post*, *Telegraph* edo *The Guardian* egunkarietan. Ukrainara itzuli baino egun batzuk lehenago, maiatzaren 30ean, zehazki, azaldu zigun zein garrantzitsua den gatazka armatuetan «begiak izatea» eta zeinen beharrezkoa den «begirada hori» gero eta emakume gehiagok egitea.



5.17 *Sabino Arana Goiriren heriotzaren 120. urteurrena eta 'Larrazabalgo Zina' deiturikoaren 130. urteurrena direla eta, hainbat jarduera antolatu ditugu 2023an. Horrela, ekainaren 1ean, Luis de Gezala historialariak euskal abertzaletasunaren sortzailearen lehen ekitaldi publikoa gogoratu zuen, duela 130 urte, 'Larrazabalgo Zina' izenez ezagun dena. Sabino Aranak bere ideia politikoak definitu eta Euskal Herriaren historia aldatu zuen hogeitabata lagunuen aurrean egindako hitzaldia izan zen hura.*



argitaratu zuen Deia *Historias vascas* sailean: «Los componentes (evolutivos) de la nación vasca según Sabino Arana Goiri».

Azaroaren 28an, ondokoek jardun zuten hizlari Aranaren heriotzaren 120. urteurrenaren kariz: Joseba Agirreazkuenaga, EHUKo Historia Garaikideko katedraduna; Óscar Álvarez Gila, historialaria eta EHUKo irakaslea; José Ignacio Salazar Arechalde, legelaria eta historialaria; eta Irune Zuluaga, legebiltzarkidea eta Sabino Arana Fundazioaren zuzendari ohia.

Azaroaren 25ean, Jean-Claude Larronde historialari eta Baionako Abokatuen Elkargoko abokatu emerituak erreportajea

5.18 Salvador Arriola eusko-mexikarraren «Entre robles y ahuehuetes. Legados de Euskal Herria» liburuaren aurkezpena

Ekainaren 14an, Salvador Arriola Barrenetxea ekonomialari eusko-mexikarrak «Entre robles y ahuehuetes. Legados de Euskal Herria» liburu aurkeztu zuen Fundazioan. Bertan, historian zehar Euskal Herriak munduari, eta bereziki kontinente amerikarrari, egindako ekarpenaren oroitzapenak eta datu historikoak biltzen dira.

Horretarako, Salvador Arriola Barrenetxeak 26 gertakari «esanguratsu eta eztabaidaekin» hautatu ditu, bost gai nagusitan antolatuta: itsasoa; kokalekuak eta migrazioa; erlijioa eta herri indigenen defentsa; hezkuntza; eta independentzia, XV. mendearen amaieratik XIX. mendearen erdira arteko aldia.

Liburu honetan, Salvador Arriolak aitarengandik jasotako 'irakaspenen' berri eman nahi digu eta gurasoaren mezuari eutsi nahi dio: «Euskal Herriak atzoko eta gaurko munduari egindako ekarriaren garrantzia». Arriolaren aita, Salvador Arriola Idarra markinar zestalaria, 30 urtez jardun zuen pilotan, gehien-gehienetan, jaialdietako partida estelarrak jokatzen.



5.19 «Euskadi, herrialde solidarioa: euskal lankidetzaren eraldaketa-ahalmena eta erronkak»

Lankidetzaren deszentralizatuaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta antolakundeek egindako garapenerako lankidetzaren esanguratsuenetako bat izan da, 1980ko hamarkadatik hona egindako ahaleginengatik eta inbertitutako esku-hartze eta finantza-baliabide kopuruagatik.

Hori dela eta, lankidetzaren euskal eredua erreferente gisa agertzen ari da mundu mailan, eredu abangoardista, hura bultzatzen duten printzipio eta balioei dagokienez, ahalmen izugarria duena, baina oraindik ere oso ezezaguna da. Zalantzarik gabe, funtsezko elementua

da eta izan behar du etorkizuneko Euskadirentzat, bai alderdi solidarioaren ikuspegitik, bai Herriaren posizionamendu globalaren ikuspegitik.



Euskadik arlo horretan etorkizunean izango dituen gaitasunak azaltzeko, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendari Paul Ortegak hitzaldia eman zuen ekainaren 27an, «Euskadi, herrialde solidarioa: euskal lankidetzaren eraldaketa-ahalmena eta erronkak» izenburuaren ildoan.

Paul Ortegak euskal elkartasunaren lehentasunak azaldu zituen gaur egun: Afrikako pobrezia eta krisi humanitarioen aurka borrokatzea; Hegoaldeko herrialdeetan ahalduzko prozesuak indartzea; genero-berdintasunaren alde lan egitea; erronka humanitarioari aurre egitea (iheslariak eta errefuxiatuak); eta kalitate demokratikoaren garapenean laguntzea, murriztua dagoen lekuetan, besteak beste.

Paul Ortegak Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Lege berriaren proiektua ere izan zuen hizpide. Laster Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrera bidaliko du, eta eLankidetzako zuzendariak «lankidetzaren testuinguru berriari erantzuna ematea» espero duela adierazi zuen.

5.20 Juan Ajuriagerra gogoan, haren jaiotzaren 120. urteurrenean (bi hitzaldi)

Sabino Arana Fundazioak Juan Ajuriagerraren jaiotzaren 120. urteurrena eta heriotzaren 45. urteurrena ospatzeko antolatu dituen ekitaldien barruan, Eugenio Ibarzabal idazle, kazetari, ekonomialari eta politikariak «Ajuriagerraren inguruko galderak» izeneko hitzaldia eman zuen Bilbon, irailaren 21ean, eta Hondarribian, azaroaren 9an.

Gizon sutsua, ekintzazalea, printzipioduna, uste sendokoa, langile nekaezina, burdinazko borondatea zuena, Ajuriagerrak bizitza osoa eman zuen kausa baten zerbitzuko: askatasunaren alde eta proiektu politiko baten alde, EAJ-PNVrena.

Euskal abertzaletasunaren buruzagiak bere bizitzan zehar izan zituen arduetako batzuk adibidetzat hartuta, Ibarzabalek azaldu zuen zein zaila den une garrantzitsuetan erabaki politikoak hartzea.



5.21 Solasaldia Alex Txikon mendizalearekin eta ANWAR (argiz betea) dokumentalaren aurkezpena

Alex Txikon alpinista lemoarra aurrendaria da «zortzimilakoak» neguan eta oxigenorik gabe igotzen. Horrezaz gainera, joan den urriaren 4an ikusitako «Anwar (argiz betea)» dokumentalean egiaztatzea izan genuen Himalaiko igoera ez-kutsagarriak eta ingurunearekiko errespetuzkoak egin daitezkeela.

Txikonek Manaslura egindako neguko azken espedizioa, urte honen

hasieran, lehen espedizio ez-kutsatzailea izan da, eguzki-panelez elikatua. Horregatik, Alex natura errespetatzen duen alpinismoaren aitzindari ere bihurtu da. Eta hori guztia eguzki-industria fotovoltaikoa bultzatzen duen EKI Fundazioaren laguntzaz. Emanaldiaren ostean, Alex Txikonek eta Nuria López de Guereñu EKIk zuzendariak dokumentala ikusten egon zirenen galderei erantzun zieten.

5.22 Euskal abertzaletasuna eta hedabideak (2 hitzaldi)

Azken mendean, euskal abertzaletasunak eta komunikabideek izan dituzten harremanak aztertzeko bi hitzaldi antolatu ditu Sabino Arana Fundazioak. Lehenengoan, urriaren 5ean, José M^a Tápiiz historialariak «La prensa vasca en el primer tercio del siglo XX: de la información a la formación de las ideologías (1900-1936)» hitzaldia eman zuen. Eta urriaren 24an, Xabier Lapitz kazetariak «Nacionalismos vasco y español en la prensa actual» gaia jorratu zuen.



UPV/EHUko Historia Garaikidea doktore Tápiizek adierazi zuen «euskal lurraldean, XX. mendearen lehen herenean, euskaldunek estatuko batez besteko alfabetatze-tasa baino nabarmen handiagoa eta egitura politiko konplexuagoa zituztela (abertzaletasuna, sozialismo errepublikazalea eta eskuindar espainolismoa), prentsaren eskaintza beste lurralde batzuetan baino zabalagoa zen. Horrek, zalantzarik gabe, baldintzatu –eta nabarmen aberastu– egin zuen garai hartako kazetaritzaren testuingurua, Gerra Zibilaren (1936-1939) eztrandak eten zuen arte.

Lapitzek adierazi zuenez, «komunikabideak ideologia guztien estrategia politikoaren atal izan dira beti, baita abertzaleena ere. Kazetaritzan, ohikoena dugu estaturik gabeko nazionalismoek prentsa borrokazalea izatea estatuko nazionalismoen prentsaren aurrean, azkenak saiatuak baitira instituzionalaren defentsan. Baina egoerak beste aldera egin du azken urteotan».

Euskal kazetariaren esanetan, «harrigarria bada ere, Espainiako prentsa nazionalista hasi da oldartzen ('Espainia mehatxatua') Euskadiko eta Kataluniako prentsa nazionalistaren aurrean; azkenek hein handi batean baretu dituzte lehengo aldarri maximalistak aukera nabarmen posiblistagoen arabera egokitu dituzte euren editorialak».

5.23 EAB. Emakumeak aberria eginez (6 hitzaldi)

«EAB. Emakumeak aberria eginez» erakusketa ibiltariaren esparruan, O.Karmele Perez Urraza, Begoña Bilbao Bilbao eta Gurutze Ezkurdia Arteaga EHUko Garaian Taldeko historialari eta ikertzaileek, erakusketaren egileek eta komisarioek, hitzaldiak eman dituzte aurten aurkeztu den tokietan: Azkoitian, Hondarribian, Irunen, Eibarren, Errearterian eta Galdakaon.

6.1 Hizkuntza-Zuzenbidea. *Euskararen erronkak Justiziaren administrazioan*

Abenduaren 18an, hainbat adituk hizkuntza-eskubidearen bilakaera aztertu zuten Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Aitor Estebanek Espainiako Kongresuan onartutako azken legearen ondorioak azaldu zituen; Jaime Tapia magistratuak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan euskarak jasaten dituen eragozpenak aztertu zituen; Andres Urrutia euskaltzainburuak Euskararen Akademiak sustatutako *Hizkuntza-zuzenbidea* proiektuaren sorrera eta helburuak azaldu zituen; Gotzon Lobera legelariak hizkuntza-eskubideen kontzeptuaren bilakaera aztertu zuen; eta, azkenik, Joseba Lozano Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetako Hizkuntza Normalkuntzako zuzendariak ELEBIDE Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuari buruz hitz egin zuen.



6.2 AROA, Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa eta EUSKARAREN GOGOETAGUNEA

Miren Dobaran Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta Iñaki Martínez de Luna AROA proiektuaren zuzendariak Eusko Jaurlaritzak garatutako proiektu horren nondik norakoak azaldu zituzten Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Geroago, Jon Sarasua Euskararen Gogoetaguneko zuzendariak Euskaltzaindiak 2022an abian jarri zuen egitasmo horren helburuak eta orain arte aurkeztu eta eztabaidatu diren txostenak azaldu zituen.

Mahai-inguru batek itxi zuen jardunaldia. Solasaldian, Idurre Eskisabel Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia, Irati Iciar Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria, Iñaki Arruti Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuko arduraduna eta Gonzalo Larruzea Didaktika eta Eskola Antolakuntzan doktorea izan ziren. Gotzon Hermosilla *Berria* egunkariko kazetariak moderatu zuen mahai-ingurua.



EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIAN EGINDAKO LANAK

Iaz egin genuen bezala, ekitaldi honetan ere, duela 30 urtetik gora zaintzen dugun dokumentu-funts handia berrikusten eta zuzentzen jarraitu dugu. Eta Bilboko zein Arteako espazioak berrantolatzen jarraitu dugu, funtsak berrinstalatzeko eta etorkizunerako metro linealak irabazten..

Bestalde, azpimarratzekoa da 2023an Fundazioak etengabe jardun duela mintegiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, liburuen aurkezpenak edo filmen proiektzioak antolatzen eta egiten; esaterako, Fundazioko kide guztien laguntza eta dedikazio handiagoa behar izan da.

I. DOKUMENTU-FUNTSAK

A. AGIRITEGIA

2023an, honako dokumentazio hau antolatu da (sailkapena, deskribapena eta instalazioa):

a. EAJ-PNV alderdiaren Bizkai Buru Batzarraren artxiboa de (1977-1997). Lehenengo fasea: honako sail hauen antolamendua, berrinstalazioa eta erregistroa (deskribapena):

- EAJ-PNV alderdiaren Bizkaiko Buru Batzarraren (BBB) aktak, 1977-1997
- BBBko buruzagitza, 1992-1996
- Justizia Auzitegia, 1978-1981
- Idazkaritzak kudeatutako dokumentazioa, 1978-1997. Honako hauek
 - BBBren bilkuren espedienteak
 - Gutuneria
 - Batzordeak
 - EAJ-PNV alderdiaren uri buru batzarrekiko harremanak
 - Erakundeekiko harremanak: Bilboko Udala / Bizkaiko Foru Aldundia / Eusko Jaurilaritza / EUDEL
 - Bazkidetza / Prestakuntza
 - Hainbat gai (Basurtuko ospitalea, Lemoiz, Euzko Gudarostea, kasu bereziak...)

b. Loiola Irratia artxiboa: irrati gidoiak, publizitate txostenak eta fakturazioa (publizitatea) serieen mekanizazioa.

c. Francisco Lorda Yoldi artxiboa, 1877-1939: Dokumentazioaren sailkapena: Familia Atala (s. XVIII – S. XX); Dokumentazio pertsonala/egiaztatzailea (1920–1938); Jarduera politikoa Iruñeko Udalean; eta besteren dokumentazioa.

d. Isaac López de Mendizabal funtsa, 1940-2003: Funtsa 120 instalazio-kutxatan berrinstalatzea eta antolatzea.

e. Sota funtsa: Ramón de la Sota Aburtoren Artxiboko dokumentazioa sailkatzeko, deskribatzeko eta antolatzeko lehen aldia amaitu dugu, laster digitalizatu ahal izateko. Honako azpifunts hauek antolatu dira: Compañía Naviera Sota y Aznar (Londresko osaera eta epaiketa Sota eta Aznarren artean, batez ere), Patrimonio-Testamentu epaiketa, Manuel de la Sota; edo dokumentazio pertsonalaren barruan, hainbat hamarkadatan Itsas Historiari buruz egin zuen ikerlanak ekarri zuen informazio idatzi eta bildutako bolumen handia, arrantza-ontzidiarekin eta/edo Euskadiko nahiz nazioarteko merkataritza-ontzidiarekin zerikusia izan zuten kapitain, ontzi, bapore, konpainia edo armadoreei buruzko ehunka datu erregistratuz.

f. Ia ehun fitxaren erregistroa, norbanakoen dohaintzetatik eratorritako beste funts eta dokumentu-bilduma historiko batzuen deskribapena eginda, hala nola Elisabet San Martín, Iñaki Anasagasti, Joxe Mari Arrazola edo Muxika Goñi neba-arrebenak, beste askoren artean.

Aipatu behar da, halaber, Artxiboko eguneroko jarduerarekin batera, 2023an Historia graduko gazte batek (1) egindako lana prestatu, zuzendu eta gainbegiratu dugula, EHUK Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan ematen duen laneratzeko bekaren (360 ordu) onuradun baitira.

B. LIBURUTEGIKO FUNTSAK

Aurten, 447 obra berri sartu dira Liburutegian. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko Liburutegia osatzen duten monografiak 35.850 dira gaur egun. Hala ere, kopuru horri Arteako urrutiko biltegian dauden 4.000 ale gehitu behar dizkiogu.

Duela urte batzuetatik egiten ari garen moduan, Bilboko gordailuan ale bakarra gordetzen da lan bakoitzaren edizio bakoitzeko, baldin eta gaia eta edukia bat badatoz gure liburutegi espezializatuan ezarritako irizpideekin. Gainerako monografiak Arteako urruneko liburutegira eramaten dira (balioa kontserbazioagatik, bikoiztasuna gorabehera) edo beste helmuga batzuetara bideratzen dira.

Ekitaldi honetan, kopuruari erreparaturik, Eduardo Estraderen, Gogora Institutuaren, Elisabete Bizkarralegorraren edo Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren dohaintzetatik datozen liburuak nabarmendu dira.

Arestian aipatu bezala, atal honetan Arteako urruneko liburutegia birsailkatzeko lanak aipatu beharko lirateke (balorazioa eta banaketa/kokapen berria, kasuen arabera); hurrengo hilabeteetan amaituko dira.

C. “UZTURRE” HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako argitalpenen aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu dugu. Aleak banan-banan sailkatu, ordenatu eta egiaztatze lanak egin ondoren, errepikatuta dauden ala ez jakiteko. Hala, 47 titulu berri gehitu dira Hemerrotekan 2023an. «Uzturre» hemerrotekak, 500 metro linealetik gorako biltegia duenak, orain arte 7.460 titulu ezberdin ditu eta 184.300 ale inguru bilduta.

Bestalde, «Hustuketa» datu-basea (informazio historikoa duten artikulak, hainbat argitalpenetan argitaratuak –Euzkadi, Alderdi, Hermes, Bizkaitarra, Deia, Euzko Deya...) dagoeneko 15.138 erregistrora iritsi da. Aurten, 1942 eta 1945 urteen arteko Caracasko *Euzkadi* egunkaritik hartutako 380 artikulak gehitu dira.

II. KONTSULTAK

2023an, 232 informazio-eskaera jaso dira Abertzaletasunaren Agiritegian (91 emakumezkoek egindakoak eta 141 gizonezkoek egindakoak), aurreko ekitaldiren ildo beretik (hau da, kontsulta gehienak posta elektronikoz (113) eta telefonoz (67) egin dira, aretoan zuzenean (24) edo gure web-orrian dauden inprimakiak edo Internet erabiliz (28).

Oroimen Historikoaren inguruko informazio-eskaerak nagusi dira: gerraren, erbestealdiaren edo norbanakoen (gudariak, presoak, desagertuak eta abar) ingurukoak. Aipatutakoen familiar-tekoek, erakundeek, hedabideek zein komunikazio-enpresek egin ohi dituzte eskaerak, informazioa ikerlan, urtemuga, proiektu, lan zehatz eta abarretan erabiltzeko.

Agiritegian urtero-urtero jasotzen diren kontsultei dagokienez, esan dezagun (urtero adierazten dugun moduan) informazioa kontsultatzeko eskaera egin eta gure erantzunean hartutako datuak aztertu ondoren, agiritegira jatorrizko agiriak ikusten datozenak ere zenbatzen direla. Aretoko erabiltzaile horien –ikertzaileak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak, ikasleak eta/edo norbanakoak– izen-abizenak eta ikergaia jasotzen dira ikertzaileei eskainitako oroitza-txostenaren azken atalean. Ikergaien zerrenda, argi denez, urtean izandako kontsulten erakusgarri eta laburpena da.

Horra hor 2023an jasotako kontsulten banakaketa:

JASOTAKO KONTSULTEN BANAKAKETA	
Unibertsitatea / Ikerkuntza	84
Norbanakoak	111
Gizarte- eta Kultura-erakundeak / Euskal Administrazio Publikoa	10
PNV / SAF	20
Hedabideak / Enpresak / Ekoiztetxeak	7

1992ko urritik hona, **7.376** kontsulta jaso dira guztira agiritegian..

III. HISTORIA ETA DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AHOLKULARITZA

Lankidetzak, solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldietako parte-hartzea, argitalpenen kontrola, ikerketa-lanen koordinazioa...

DATA	EKITALDIA	PARTAIDEA
2023/01/11	Bilboko <i>Euzko Gaztedi</i> -ri buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/02/01	<i>Euzkadi</i> egunkariaren lehen zenbakiari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/02/04	Paco Rabanne-ri buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian (aurreko egunean hil zen) 1997ko urriaren 15ean, SAFek gonbidatuta Bizkaira etorri zenean	Jauregi, Eduardo
2023/02/14	Pedro Urraca Rendueles buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian eta dokumentalaren emanaldia SAFen	Gezala, Luis de
2023/02/14	Pedro Urraca Rendueles buruzko elkarrizketa Bizkaia irratian eta dokumentalaren emanaldia SAFen	Goigana, Iñaki
2023/02/14	TeleBilbaoren «La visita» saioa, Agiritegian	Goigana, Iñaki

2023/03/08	Emakumeari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian (emakumeak Zamakoladan eta gerran askatutakoak – eskuinekoak–)	Gezala, Luis de
2023/03/15	Argentinako <i>Laurak Bat</i> lehen Euskal Etxeari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/03/22	Euskal haurren erbestealdiari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian (Ingalaterran, Arrienen lana eta abar)	Gezala, Luis de
2023/03/22	«Kultura demokratikoan sakontzen. Burujabetzaren bidetik» mintegian parte-hartzea	Goigana, Iñaki
2023/03/29	Durangoko bonbardaketari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/04/05	Aberri egunei buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/04/16	Sabino Arana Fundazioari, bere funtsei, euskal historiari eta abarri buruzko elkarrizketa Argentinako <i>Presencia Vasca en Paraná</i> irratian.	Gezala, Luis de
2023/04/26	Gernikako bonbardaketari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/05/10	Lezo Urreizietari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/05/17	Euskaldunen eta frantsesen arteko 1940ko itunari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/05/24	Felipe Arrese Beitia poetari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/05/31	Sabino Aranari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/06/07	<i>Bizkaitarra</i> argitalpenari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/09/13	Frankistek Donostia okupatu izanari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/09/27	Erregimen frankistaren azken exekuzioei buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/10/04	Lehen Eusko Jaurlaritzaren eraketari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/10/11	Urriaren 12ko jaiari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/10/18	Jose Ariztimuño <i>Aitzol</i> -en hilketari (10/17/) buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/10/20	Giza Eskubideen Katedraren Mintegian parte hartzea	Goigana, Iñaki
2023/10/25	1839/10/25eko Legeari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/11/07	Norbanakoen artxiboen eta artxibo pribatuei buruzko mintegian parte hartzea	Gezala, Luis de
2023/11/07	Norbanakoen artxiboen eta artxibo pribatuei buruzko mintegian parte hartzea	Jauregi, Eduardo
2023/11/07	Norbanakoen artxiboen eta artxibo pribatuei buruzko mintegian parte hartzea	Goigana, Iñaki
2023/11/08	Artetari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/11/15	Euskadiko guda ontzidiaren lehen borrokaldiari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/11/16	Bilboko Udalak eta Gogora Institutuak 37an ebakutatutako euskal	Goigana, Iñaki

	hurrei buruz Abandoko Udaltegian antolatutako ekitaldian parte hartzea	
2023/11/22	Sabino Arana Goiriren inguruko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/11/28	Sabino Arana Goiriri (120 urte) buruzko mahai-inguruan parte hartzea	Gezala, Luis de
2023/11/29	San Andresi buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2023/12/01	Euskal kulturaren memoriari buruzko mintegian parte hartzea	Goigana, Iñaki
2023/12/12	Diktadura frankistari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de

DEIA

DEIA: urte osoan, asteroko artikulak Historias vascas sailean argitaratzeko, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegitik koordinatua 2009tik.

ARGITALPENAK

Ondoko lanak argitaratu dira ePUB formatuan

- Gregorio Arrienen «Salvad a los niños» *Historia del exilio vasco en Inglaterra, 1937-1940*.
- Miren Barandiaranen «Las voces de la clandestinidad». *Publicaciones periódicas del PNV, 1939-1975*.

IV. AGIRIEN DOHAINTZAK

2022ko ekitaldian, 38 pertsonak eta/edo erakundek dohaintza egin diote Abertzaletasunaren Agiritegiari. Kopuru horretatik, 23 emaila berriak izan dira aipaturiko ekitaldian.

Orain arte, guztira **1.609** dohaintza jaso dira Agiritegian

Hauexek izan dira dohaintza-egileak:

Dohaintza-egilea	Funtsa	Data
BERGARAKO UDALA	Liburutegia	2023/01/23
UKRANIASOS	Herrien Europa Institutua	2023/01/30
PESCADOR, AITOR	Agiritegia (Francisco Lorda Yoldi funtsa)	2023/02/06
BOTO, ALEXANDER	Hemeroteka	2023/02/07
TEJERO, IMANOL	Agiritegia	2023/02/15
SAN MARTÍN, ELISABET	Agiritegia (Ángel San Martín funtsa)	2023/02/16
HONDARRIBIKO UDALA	Liburutegia	2023/02/28
ESTRADE, EDUARDO	Liburutegia (Eduardo Estrade Alda funtsa)	2023/03/01
MUJICA, AMAIA	Agiritegia eta Museoa (Karmele Goñi funtsa)	2023/03/16
DEBAKO UDALA	Liburutegia	2023/03/21
PIEDRA, GABRIEL	Hemeroteka	2023/03/23
LAZKAOKO BENED. FUND.	Liburutegia (Olaizola funtsa)	2023/04/26
GAINTZA, LUIS ANGEL	Hemeroteka eta Museoa	2023/04/27
DELGADO, MANOLO	Ikus-entzunezkoak	2023/05/03

Dohaintza-egilea	Funtsa	Data
PÉREZ, ROSA M ^a	Agiritegia, Lib., Hemeroteka eta Museoa	2023/05/04
EBB, EAJ-PNV	Agiritegia	2023/05/17
GOGORA	Liburutegia	2023/05/17
ARRAZOLA, JOXE MARI	Agiritegia (Engrazio Aranzadi funtsa)	2023/05/17
LEJARCEGUI, JABIER	Agiritegia (Víctor Lejarcegi funtsa)	2023/06/19
BATARRITA, JAVIER	Hemeroteka	2023/07/04
ATUTXA, JUAN MARI	Liburutegia	2023/07/19
LARRAÑAGA, JULE	Agiritegia	2023/07/19
GUZMÁN, TOMÁS	Agiritegia (Sota familia)	2023/08/02
BASALDÚA, JUAN	Liburutegia	2023/09/15
GURRUTXAGA, MILAGROS	Agiritegia	2023/09/16
POLLEDO, GERARDO	Agiritegia	2023/09/27
MARIO ONAINDIA FUND.	Hemeroteka	2023/10/05
UNZALU, ELEDER	Agiritegia	2023/10/16
0ARREN, KARMELO	Hemeroteka eta Liburutegia	2023/10/23
ITURRALDE, MIREN	Liburutegia	2023/10/30
ANONIMO	Liburutegia	2023/10/31
SERTUTXA, EDUARDO	Agiritegia	2023/11/02
ANASAGASTI, IÑAKI	Agiritegia, Lib., Hemeroteka eta Museoa	2023/11/27
PÉREZ, JUAN CARLOS	Agiritegia	2023/11/28
ALLENDE, FRANCISCO	Agiritegia	2023/11/29
LOPEZ ORTEGA, JOSEBA	Agiritegia	2023/11/29
ONDARRETAko BATZOKIA	Agiritegia	2023/12/05
LIBANO, FAMILIA	Liburutegia	2023/12/13

V. IKERTZAILEAK

2022an, 52 ikertzailek kontsultatu dituzte gure dokumentu-funtsak aretoan (38 gizonezko eta 14 emakumezko).

Ikergaiak honako hauek izan dira:

Euskal abertzaletasuna Zallan
Euskal Osasun Militarra
Bilboko Koral Elkarte, 1936-1939
Bilboko aireko babeslekuak
Eresoinka, Karmele Urresti eta Txomin Letamendi
Intxortako frontea (Elgeta)
EAJren ideia europazalea trantsizioan eta euskarazko emanaldiak BBCn
Ondarretako Ikastetxea
Abertzaletasuna Araban 1936an
Saibigaineko bataila

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak abertzaleen ikuskera eta praktiketan
Mateo eta Pedro Oliden Aizpurua, gudariak
Leioako EAJ-PNVren historia
Durangaldeko gerraurreko albisteak
Polonia eta Euskadiren arteko harremanak
Gipuzkoako haurren erbestea eta Gurseko kontzentrazio-eremua
Kolonbiako kanpo-politika eta Espainiako gerra zibila, 1936-1939
Gudarien pentsioak
Lehendakariak: Garaikoetxea eta Ardanza dokumentalak (New digital media Euskadirentzat)
Mercedes Careaga Guisasola
Talde monarkikoak bigarren mundu-gerran (Tesia)
Nazionalismo periferikoak (ministerio-proiektua)
Iragana asmatzea
Joaquín Hernández Eiguren (senidea)
Aberri Egunak eta Diadak, konparaketa
DEIA 1983
Ammende (buruzagi nazionalista estoniarra), Euskadi – Estonia
Zinkunegi: AMI VASCO itzulpenaren egilearen bila
Aberri Eguna eta Hispanitatearen Eguna Gernikan 1964an
Franco gordailua arazteko espedienteak, 1937
Gernikako Arbola Argentinan
Manuel Gonzalo Gutiérrez, Santurtzikoa
EAJ – Katalunia harremanak
Nicolás Landa Garai (itsasontziko kapitaina, Plentziako alkatea 1931-33, etab.)
Emakume Abertzale Batza eta mendigoizaleak
Gerra zibila Euskadin
Lehen Mundu Gerra
Bizkaiko Musika Kontserbatorioaren historia
Euskal kulturaren hedapena (Eresoinka, etab.) Ingalaterran 1945 arte
Companys presidentearen eta Agirre lehendakariaren erbestea
Prudencio Abarrategi
Lemoizko zentral nuklearra
Sopela, bigarren errepublika, gerra, etab.
Antonio Zubimendi Darras (aitona) eta Joseba Zubimendi Martiarena (birraitona)
Bilboko Gurutze Gorria, 150 urte
Joseba Zinkunegi Arruti eta Ander Arzelus
Familiaren historia, Moisés Montoya Bujanda

VI. INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA: WEBGUNEA – SARE SOZIALAK

- Sabino Arana Fundazioaren webgunean dagoen datu-basea aldian behin eguneratzea, gure dokumentu-funtsen artean biltzen ditugun liburu, aldizkari eta egunkariei buruzko informazioarekin.
- Efemerideak sare sozialetarako (Facebook, Instagram eta Twitter)
- Mezu@buletin elektronikoa bidaltzea, urtero egiten ditugun jardueren berri emateko Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Ekitaldiak streaming bidez zuzenean zabaltzea; gure egoitzako Lehendakari Agirre aretoan egiten diren jardueren bideo-grabazioak biltegitratzea (hitzaldiak, mintegiak, liburuen aurkezpenak, etab.) eta ondoren Internetera igotzea, gure webgunetik edo YouTubeko profiletik nahi denean ikusteko.

2022ko Sabino Arana Sariak: itxaropenaren gorazarre

Bilboko Arriaga antzokia berriro ere izan GENUEN Sabino Arana Sariak emateko agertoki paregabea. XXXIV. edizioan, Sabino Arana Fundazioaren esker-erakusgarriak itxaropenaren gorazarre bilakatu zitzaizkigun egun bizi gaituen aro zail honetan.

Horixe bera azpimarratu zuen Mireia Zarate Sabino Arana Fundazioaren presidentek ekitaldiaren hasieran. «Egitan, bolada zailean bizi gara gaur egun, ekonomia, politika eta gizarte arloetako ziurgabetasunez betea, baina, beste alde batetik, etorkizun hobea eraikitzeko gogo biziz dagoen gizartea da gurea».

«Gaurkoan sarituko ditugun ekimenak, pertsonak, ibilbideak eta kausak itxaropenaren gorazarre ditugu. Etorkizunari irribarrez begiratzeko modua ematen digute. Itxaropenez. Ziurgabetasun horiei guztiei aurre egingo dien ziurtasunez», adierazi zuen.

Hala, Zaratek aurtengo saridunen merezimenduak azpimarratu zituen. Hasteko eta bat, 'Irulegiko Eskua' aurkitu zuen Aranzadi Zientzia Elkarteko eta EHUko kideek osaturiko talde bikaina izan zuen hizpide, nondik gatozen eta gure hizkuntza hobeto ezagutzeko aukera emango digun aurkikuntza baita». Hala berean, «Irakli Kobakhidzek demokraziaren alde eta giza eskubideak errespetatu daitezkeen egin duen lan irmoa laudatu zuen, eta Euskadi eta Georgia hurbil daitezkeen sustatutako bultzada» azpimarratu zuen. Horrezaz gain, «duela 50 urtetik hona, garun-paralisiak eta antzeko asaldurek jotako senideen bizitza hobea izan dadin, Aspace Gipuzkoan lanean ari diren familiek osaturiko taldearen lana» aintzatu zuen. Era berean, «Mikel Sánchez zirujau gasteiztarraren esku doi-doiak eta teknologia nahiz tratamendu modernoek aldeko apustu ausarta» eta «Bilbao Orkestra Sinfonikoaren musikaz gozatzeko parada izan dezagun, batuta artezten duten esku iaioak eta musika-tresnak laztantzen dituzten esku zilarrak» aipatu zituen. Azkenik, errusiarren inbasioaren zioz, Ukrainako herria pairatzen ari den egoera salatu nahi izan zuen. «Ukrainako herriari eta iheslari ukrainarrei laguntza ematen dieten Euskadiko elkarteei emandako sari honen bidez, ozen esan nahi dugu ez dugula gerrarik nahi, bakea nahi dugu; eta orobat, elkartasuna adierazi nahi diegu, gerraren eta erbestearen izugarrikeria nozitu duen herri gisa, bidegabekeria hori gaur egun pairatzen ari diren milaka pertsonen».

Fundazioaren Patronatuko kideek lagunduta, Sabino Arana Fundazioaren presidentek 2023ko sei sariok banatu zituen. Aurreko 33 edizioetan, beste 186 pertsonak, elkartek eta erakundek jaso dute Sabino Arana Fundazioaren aintzatespena.

BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

Sabino Arana Fundazioaren izaera pluralak aukera eman dio beste erakunde eta organismo batzuetako ordezkarietara bilerak egiten jarraitzeko, euren jardueratik sortutakoez gain.

2023an honako hauek izan dira:

otsailak 19 (igandea):	«Agurra» eskulturaren inaugurazioan parte hartu genuen, Gerra Zibilean, Berangon (Bizkaia) hildakoak gogoratzeko ekitaldian, herri horretan dagoen Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoaren hamargarren urteurrenaren kariz.
otsailak 23 (osteguna):	Kandido Sasetaren heriotzaren 86. urteurrena. Hondarribiko EAJ-PNV alderdiarekin lankidetzan. Hondarribiko Karlos V.a paradorearen ekitaldi-aretoa (Arma plaza, 14).
martxoak 9 (osteguna):	Bilboko Udalak eta hainbat erakunde zein sindikatuk 1931. urtean hautatu zen udalbatzari egindako omenaldian parte hartu genuen. Soldadu frankistek, Bilbo indarrez okupatu ostean, udalbatza hartako kideei karguak kendu eta jazarri egin zituzten.
martxoak 18 (igandea):	Gipuzkoako Foru Aldundiak Gerra Zibiletik ihesi erbestera jan ziren 10.000 ume gipuzkoarrei egindako omenaldian parte hartu genuen.
apirilak 26 (asteazkena):	Gernikako bonbardaketaren 86. urteurrenaren kariz, sarraski hura gogoraratzeko ekitaldietan parte hartu genuen.
ekainak 18 (larunbata):	Gerra Zibileko gudari, miliziano eta emakumeentzako omenaldia, Artxandako «Aterpe 1936» eskulturaren aurrean.
irailak 8 (ostirala):	Euskal Diasporaren Nazioarteko Egunaren seigarren edizioan parte hartu genuen, Gernikan. Urkullu Lehendakaria izan zen ekitaldiaren buru.
irailak 17 (igandea):	Zirardamendin (Aiastia-San Migel-Elgoibar) hildako gudariei eta milizianoei egindako omenaldian parte hartu genuen. Elgoibarko Udalak antolatu zuen ekitaldia.
azaroak 16 (osteguna):	Iñaki Goigana historialariak (SAF) «Gerra Zibila Bilbon: atzerako begirada. Ebakuatutako haurren testigantzak» dokumentala aurkeztu zuen. Antolatzaileak: Gogora eta Bilboko Udalak.
azaroak 21-24:	Nazioarteko biltzar batean parte hartu genuen: <i>Musika erbestean</i> .

- Hainbat jakintza- zientzia-arlotako adituak.
- Agintariak eta politika-, ekonomia- eta gizarte-esparruetako ordezkariak: politikariak, katedradunak, legelariak...
- Iritzi-sortzaileak eta hedabideak.
- Irakasleak, ikertzaileak, unibertsitateko profesionalak.
- Umeak, familiak, praktikaldiko ikasleak eta bekadunak, erretiratuak.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Ildo horretan, gure zabalkunde-plana Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetan hedatzen da.

Lortutako emaitzen ebaluazioa

Hasieran adierazi dugun moduan, urtearen barruan lehen euskal egunkari abertzalearen 130. urteurrena gogorarazi dugu: *Bizkaitarra*; 'Larrazabalgo Zina' deiturikoaren 130. urteurrena eta horren egile nagusi Sabino Arana Goiri heriotzaren 120. urteurrena; Juan Ajuriagerraren jaiotzaren 120. urteurrena; *Euzkadi*-ren lehen alea argitaratu zeneko 110. urteurrena; Iruñean *La Voz de Navarra* egunkari abertzalearen lehen zenbakia argitaratu zeneko mendeurrena; Luis Alavaren fusilamenduaren 80. urteurrena, «Euskadi Think Next» ideia-laborategia jarri dugu abian, eta topaldiak eta jardunaldiak egin ditugu PDE-EDP, Euskaltzaindia, Helduak eta abarrekin, besteak beste.

Bide horretan guztian, Sabino Arana Fundazioak gizarte-oinarri oso anitza du, bai maila sozialean, bai politikoa.

Era berean, ahalik eta gehien saiatzen gara emakumeen parte-hartzea bultzatzen eta genero-berdintasuna sustatzen. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak dioenari jarraiki, Fundazioak, bere jardueretan, berdintasunaren printzipioa gauzatzeko beharrezko neurriak sustatzen ditu, eta printzipio horren oinarri diren balioak eta praktikak sustatzen ditu. Horrela, bai barruko erabaki-organoetan – Patronatuan, etab. – Bai gure gonbidatuen eta parte-hartzaileen artean abiaburu hori betetzen saiatzen gara.

Aipatzekoa da, halaber, Sabino Arana Fundazioan euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa bermatzeko neurriak hartu ohi ditugula, euskararen dimentsio bikoitza gure herriaren kultura-ondarearen funtsezko zatitzat hartuta.

Atera diren kopuru eta datuak ikusita, begiz jotako aurreikuspenak behar bezala bete ditugula uste dugu.

HIZKUNTZA- ETA GENERO-POLITIKEN ADIERAZPENA

Esan beharra dago Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea dela fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsatzen duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu.

Aipatzekoa da, halaber, Sabino Arana Fundazioan euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa bermatzeko neurriak hartzen ditugula, euskararen dimentsio bikoitza gure herriaren kultura-ondarearen funtsezko zatitzat hartuta.

Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren arabera, «Ezagutzaren arloan oraindik urrats sendoak eman behar badira ere, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteko bidean, plan honen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea izango da».

Ondorioz, proiektu hau bat dator ESEPe jasotzen duen helburu nagusiarekin, bai eta helburua lortzeko proposatzen dituen zeharkako ildoekin ere, hau da, «Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea ez da zentzu hertsian hartu behar, zentzu zabalean baizik. Hizkuntza ikasteko motibazioan eragitea funtsezkoa da, noski, baina, horrekin batera, ezinbestekoa da euskara erabiltzeko argudioak eskaintzea, hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategia bat eskaintzea, hizkuntzen kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea, soziolinguistikari buruzko oinarrizko azalpenak gizarteratzea, ezagutzatik hizkuntzaren erabilerarako jauzia egiten lagunduko duten jarduerak antolatzea, hizkuntzaren normalizazioaren arloan lidergoa izatea, eta abar».

2023an EGINDAKO JARDUERAK

urtarrilak 13 (ostirala):	Sabino Arana Sarien XXXIV. edizioaren aurkezpena.
urtarrilak 20 (ostirala):	«Euskadin izan diren eraldaketa handiak» zikloa. <i>Industriaren eraldaketa</i> , Jon Azua eta Guillermo Dorronsororen eskutik.
urtarrilak 29 (igandea):	Sabino Arana Sarien XXXIV. ekitaldia, Bilboko Arriaga antzokian.
otsailak 10 (ostirala):	«EAB. Emakumeak aberria eginez» erakusketaren inaugurazioa, Azkoitia.
otsailak 14 (asteartea):	«Urraca, cazador de rojos» dokumentalaren aurkezpena, Pedro de Echave gidoilari eta zuzendariaren eta Gorka Landabururen eskutik.
otsailak 17 (ostirala):	«Euskadin izan diren eraldaketa handiak» zikloa. <i>Teknologiaren eraldaketa</i> , Álex Rayónen eskutik.
otsailak 19 (igandea):	«Agurra» eskulturaren inaugurazioan parte hartu genuen, Gerra Zibilean, Berangon (Bizkaia) hildakoak gogoratzeko ekitaldian, herri horretan dagoen Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoaren hamargarren urteurrenaren kariz.
otsailak 23 (osteguna):	Kandido Sasetaren heriotzaren 86. urteurrena. Hondarribiko EAJ-PNV alderdiarekin lankidetzan. Hondarribiko Karlos V.a paradorearen ekitaldi-aretoa (Arma plaza, 14).
otsailak 24 (ostirala):	Sabino Arana Fundazioaren lehen EPUB lanaren argitalpena linean: Gregorio Arrien historialariaren «¡Salvad a los niños! Historia del exilio vasco en Gran Bretaña, 1937-1940».
otsailak 28 (asteartea):	«EAB. Emakumeak aberria eginez» erakusketaren inaugurazioa, Hondarribian.
martxoak 2 (osteguna):	«Manuel Irujo: kristaua, demokrata eta euskalduna», Patxi Agirre historialariaren eskutik.
martxoak 9 (osteguna):	Bilboko Udalak eta hainbat erakunde zein sindikatuk 1931. urtean hautatu zen udalbatzari egindako omenaldian parte hartu genuen. Soldadu frankistek, Bilbo indarrez okupatu ostean, udalbatza hartako kideei karguak kendu eta jazarri egin zituzten.
martxoak 17 (ostirala):	Euskadin izan diren eraldaketa handiak» zikloa. <i>Ingurumenaren eraldaketa</i> , Fernando Temprano eta Ivan Martenen eskutik.
martxoak 17 (ostirala):	«EAB. Emakumeak aberria eginez» erakusketaren inaugurazioa, Irunen.
martxoak 18 (larunbata):	Gipuzkoako Foru Aldundiak Gerra Zibiletik ihesi erbestera jan ziren 10.000 ume gipuzkoarrei egindako omenaldian parte hartu genuen.
martxoak 22 (asteazkena):	«Kultura demokratikoa sakontzen. Burujabetzaren bidetik» mintegia, Oreki Fundazioarekin lankidetzan.
martxoak 23 (osteguna):	«EAB 100 urte. Emakumeak Aberria eginez» hitzaldia, Irunen.

martxoak 28 (asteartea):	«Picasso presents Gernika» dokudramaren aurkezpena, ondokoen eskutik: Annika Speer (zuzendaria), Begoña Etxeberria (gidoilaria) eta Derek Doyle (Bilbon egondako britainiar kontsul ohia eta «Basque Children 37 UK» elkarteko kidea).
apirilak 18 (asteartea):	«EAB. Emakumeak aberria eginez» erakusketaren inaugurazioa, Eibarren, eta hitzaldia erakusketaren komisarioen eskutik.
apirilak 19 (asteazkena):	«Idaztearen langintza», «Liburuen txokoa» zikloaren barruan, Toti Martínez de Lezearen eskutik.
apirilak 21 (ostirala):	Euskadin izan diren eraldaketa handiak» zikloa. <i>Kulturaren eraldaketa</i> . Hizlariak: Juan José Ibarretxe, Kirmen Uribe, Andres Urrutia eta Kike Amonarriz.
apirilak 26 (asteazkena):	Gernikako bonbardaketaren 86. urteurrenaren kariz, sarraski hura gogorarazteko ekitaldietan parte hartu genuen.
apirilak 27 (osteguna):	Hitzaldia <i>Helduak</i> elkartarekin lankidetzan: «Intereneteko arriskuak». Ertzaintzaren Idazkaritza Nagusiko Iker Legardón eta Lander Jauregiren eskutik.
maiatzak 3 (asteazkena):	Guztiontzako kirola. Daniel Ruiz Bazán eta Manolo Delgado Mecoren eskutik. Moderatzailea: Eduardo Velasco, kazetaria.
maiatzak 4 (osteguna):	Luis Alavaren erailketaren 80. urteurrena. Hitzaldia Txema Monteroren eskutik.
maiatzak 30 (asteartea):	«Emakume handiak» zikloa: «Gerrako argazkilariak eta berriemaileak: gatazkaren beste begirada», María Senovilla kazetari eta gerrako berriemailearen eskutik.
ekainak 1 (osteguna):	Hitzaldia «Larrazabalgo zina» deritzonaren 130. urteurrenaren kariz, Luis de Gezala historialariaren eskutik.
ekainak 7 (asteazkena):	«Larrialdi klimatikoa: lankidetzaren deszentralizatuaren erronkak» mintegia. Hizlariak: Jaime Mira Salama (AECID lankidetzaren erakundearen Etiopiako bulegoa); Macarena Larrea Basterra (Deustuko Unibertsitateko Orkestra-Lehiakortasunaren Euskal Institutuko Energia eta Ingurumen Laborategiko ikertzailea); eta M ^a Mar Alonso Martín (IHOBE erakundeko Ekintza Klimatikoaren arduraduna).
ekainak 14 (asteazkena):	Salvador Arriola Barrenetxea eusko-mexikar ekonomialariaren «Entre robles y ahuehuetes. Legados de Euskal Herria» liburuaren aurkezpena.
ekainak 16 (osteguna):	Euskadin izan diren eraldaketa handiak» zikloa. <i>Euskadi munduan</i> . Hizlariak: Marian Elorza eta Izaskun Bilbao.
ekainak 18 (larunbata):	Gerra Zibileko gudari, miliziano eta emakumeentzako omenaldia, Artxandako «Aterpe 1936» eskulturaren aurrean.
ekainak 27 (asteartea):	«Euskal lankidetzaren eraldaketaren, elkartasunaren eta nazioarteko harremanen etorkizuneko ahalmena», Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendari Paul Ortigaren eskutik.
uztailak 12 (asteazkena):	Jesús Insausti <i>Uzturre</i> -ren heriotzaren XXX. urteurrena.
uztailak 27 (osteguna):	<i>Hermes</i> aldizkariaren 75. zenbakia argitaratu zen (Sabino Arana Goiriri eskainia).

irailak 8 (ostirala):	Euskal Diasporaren Nazioarteko Egunaren seigarren edizioan parte hartu genuen, Gernikan. Urkullu Lehendakaria izan zen ekitaldiaren buru.
irailak 17 (igandea):	Zirardamendin (Aiastia-San Migel-Elgoibar) hildako gudariei eta milizianoei egindako omenaldian parte hartu genuen. Elgoibarko Udalak antolatu zuen ekitaldia.
irailak 21 (osteguna):	«Juan Ajuriagerraren inguruko galderak» hitzaldia, Eugenio Ibarzabal ekonomialari, kazetari eta idazlearen eskutik.
irailak 27 (asteazkena):	Hitzaldia Helduak elkartearekin elkarlanean: «Zaintzaren bidetik barrena», Ana Tejedor, psicóloga de Zaintzea, Centro Municipal de Apoyo a Familiares Cuidadores.
irailak 29 (ostirala):	«Estu eta Larri. Con el Agua al cuello» erakusketaren inaugurazioa, Sabin Etxean.
urriak 4 (asteazkena):	«Anwar» (Argiz betea) filmaren emanaldia eta ondoko solasaldia protagonistarekin (Alex Txikon) eta EKI Fundazioaren zuzendari Nuria López de Guereñurekin.
urriak 5 (osteguna):	«Euskal abertzaletasuna eta komunikabideak» zikloa. «La prensa vasca en el primer tercio del siglo XX: de la información a la formación de las ideologías (1900-1936)» hitzaldia, José María Tápiiz historialariaren eskutik.
urriak 6 (ostirala):	PDE-EDPren mintegia: «Lehiakortasuna eta jasangarritasuna etorkizuneko erronka teknologiko eta energetikoen ardatz».
urriak 10 (asteartea):	«EAB. Emakumeak aberria eginez» erakusketaren inaugurazioa, Erreterian.
urriak 24 (asteartea):	«EAB. Emakumeak aberria eginez» erakusketaren inaugurazioa, Galdakaon.
urriak 24 (asteartea):	«Euskal nazionalismoa eta komunikabideak» zikloa. «Nacionalismos vascos y español en la prensa actual» hitzaldia, Xabier Lapitz kazetariaren eskutik.
urriak 27 (ostirala):	Mintegia (Masterclass): «Museoko materialen 3D digitalizazioa», Nestor F. Marqués arkeologo eta ikertzailearen eskutik.
azaroak 6 (astelehena):	«Emakumeak Aberria Eginez. Emakume Abertzale Batza 100 urte» liburuaren aurkezpena, Gogora Institutuan (María Díaz Harokoa, 3).
azaroak 7 (asteartea):	«Funts pribatuak eta pertsonalak (XIX. eta XX. mendeak) artxibo historikoetan» mintegia. Hizlariak: Mikel Aizpuru, Borja Aguinagalde, Miquel Pérez, Miren Barandiaran eta Iñaki Goiozana. Moderatzaileak: Eduardo Jauregi eta Luis de Gezala.
azaroak 9 (osteguna):	«Juan Ajuriagerraren inguruko galderak» hitzaldia, Eugenio Ibarzabal ekonomialari, kazetari eta idazlearen eskutik. Hondarribian, Zumardikoak Elkartearekin lankidetzan.
azaroak 9 (osteguna):	Helduak elkartearekin elkarlanean, «Mendeko pertsonak etxean mobilizatzea » hitzaldia Markos González gerokultorearen eskutik.

azaroak 15 (asteazkena):	«Itsasoa, berdintasun lurraldea» zikloa. «Bilboko Portuaren historia txikiaren handia, lurruntzietatik GPSra» hitzaldia, Luis Mari Arriola <i>Piloto</i> -ren eskutik.
azaroak 16 (osteguna):	«Gerra Zibila Bilbon: atzerako begirada. Ebakuatutako umeen testigantzak» dokumentalaren aurkezpena, Iñaki Goioanaren eskutik (SAF). Antolatzaileak: Gogora eta Bilboko Udala.
azaroak 17 (ostirala):	Mintegia (Masterclass-a) «Nola egin berariazko bilgarriak museoko gauzakiak babesteko, Arte Ederretako lizentziadun eta prebentziozko kontserbazioari buruzko aditu Begoña Aristegiren eskutik.
azaroak 18 (larunbata):	“Euskadi Think Next” berrikuntza politiko eta publikoko laborategi berriaren aurkezpena, Kobetamendin. Parte-hartzaileak: Euzkadi Buru Batzarreko presidente Andoni Ortuzar; EAJ-PNV alderdiaren Berrikuntza Politikoaren arduradun Xabier Barandiaran; eta ‘Entzunez Eraiki’ entzuketara aktiboaren ekimenean landu ziren koordinatzaileak, Maitane Leizaola, Jone Berriozabal, Imanol Lasa eta Imanol Pradales.
azaroak 21-24:	Nazioarteko biltzar batean parte hartu genuen: <i>Musika erbestean</i> .
azaroak 28 (asteartea):	Mahai-ingurua: «Sabino Arana Goiri. 120 urte», Joseba Agirreazkuenaga, Óscar Álvarez Gila, José Ignacio Salazar Arechalde eta Irune Zuluagaren eskutik.
azaroak 29 (asteazkena):	Euskadi Think Next mintegia: «Polarizazioa. Demokraziaren haustura?», Luis Miller eta Miriam Juan-Torresen eskutik.
abenduak 1 (ostirala):	«Euskal kulturaren memoria: arte eszenikoak». <i>Euskal antzerkiaren eta zinegintzaren nondik norakoak XX. mendean</i> . Mireia Zarate eta Bilboko Udaleko Lanidetza, Bizikidetza eta Jaiei zinegotzi Itziar Urtasunez gain, ondoko hizlariak parte hartu zuten: Aizpea Goenaga, zuzendari, aktore, gidoilari eta idazlea; Josu Martínez, zinemagile eta UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio arloko irakaslea; Aitziber Atorrasagasti, SAREA –Euskadiko Antzokien Sarea– antolakundeko kide Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko zuzendaria; eta Iñaki Goioana (moderatzailea).
abenduak 2 (larunbata):	Hezkuntzari buruzko mintegia. «Eleaniztasun estrategian bidea egiten: aukerak eta erronkak». Hizlariak: Jokin Bidarratz Hezkuntza sailburua; Begoña Pedrosa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea; Jasone Cenoz, DREAM Ikerketa taldeko arduradun ohia eta UPV/EHUko katedraduna; eta Roberto Mielgo filologo ELEBILAB Ikerketa taldeko kidea.
abenduak 18 (astelehena):	Euskarari buruzko mintegia. «Hizkuntza-Zuzenbidea: euskararen erronkak Justiziaren administrazioan».
abenduak 20 (asteazkena):	Euskadi Think Next mintegia: «Politika eta hedabideak. Komenientziako harremana?», Enric Julianaren (La Vanguardia) eta Daniela Álvarez (Ac2ality) eskutik.
abenduak 21 (osteguna):	Euskarari buruzko mintegia. «AROA, Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduztzeko marko estrategikoa eta Euskararen Gogoetagunea».